

KOIUNTURAZ

79. zkia.

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123


AURKIBIDEA

LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	12
Ekoizpen jarduera	13
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa	19
Lan merkatua.....	24
Prezioak, kostuak eta soldatak	29
Prezioak	29
Lan kostuak eta soldatak	33
Arlo publikoa.....	35
Finantza arloa	37
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	43
Ingurunerako aurreikuspenak	43
EAErako aurreikuspenak	49

LABURPENA

Zazpi hiruhilekoz jarraian hazkunde leuna lortu ondoren, 2012ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak barne produktu gordinaren (BPG) jaitsiera bat jaso zuen berriro, urte arteko tasan % -0,3 izan zena eta aurreko datua baino puntu erdi bat beherago dagoena. Orobat, hiruhileko arteko tasan, bi hiruhilabetez jaitsierak kateatu ditu, atzeraldiaz hitz egiteko erabili ohi den baldintza betetz. Hala ere, lehen hiruhilabeteko beherakada Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreikusi zuena baino nabarmen txikiagoa izan zen, neurri handi batean barne eskariak espero zena baino hobeto erantzun zuelako. Berriro ere, bultzada osoa kanpotik iritsi zen, hazkundeari sei hamarreneko ekarpena egin zuelako. Eraitza hori aurreko hiruhilekokoaren erdia da gutxi gorabehera, EAEko esportazioen helburua diren herrialdeek erakusten duten ahultasun gero eta larriagoaren ondorioz. Izan ere, Europako herrialdeek, batez beste, zazpi hamarrenetan moteldu zuten hazkunde tasa, ia hutsalak diren gehikuntza erritmoetan kokatu arte.


EAEko ekonomia. BPGaren bilakaera.



Iturria: Eustat.

Moteltzeko joera ez zen europar herrialdeetan bakarrik gertatu eta munduko ekonomiaren multzoan ere hauteman zen, dagoeneko bi urte baitaramatza gero eta erritmo apalagoak jasotzen, egonkortasunerako nolabaiteko joera erakusten duen arren. Alde batetik, garapen bidean dauden herrialdeek munduko merkataritzaren bizitasun makalagoa, 2011ko hirugarren hiruhilekotik gero eta ahulago baitago, hauteman dute. Halaber, herrialde horietako batzuetan inflazioa kontrolatzeko onartu ziren politikek ekoizpena galgatu zuten, herrialdearen hazkundea arriskuan jarri arte. Hori dela eta, une hauetan alderantzizko mugimenduak onartu dira eta moneta neurri hedakorrak ezarri dira, interes tasak behin eta berriro jaitsiz.

Munduko ekonomia. BPGaren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasa eta indizea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostat, ELGE, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakundearen datuak erabilia.

Herrialde garatuen artean, oso bestelakoak dira Europar Batasunaren geldotasuna eta estatubatuar ekonomia lortzen ari den sendotasuna, azken honek %2,0ko urte arteko tasa jaso baitzuen, hots, aurreko datua baino lau hamarren gehiago. Arlo pribatuaren kontsumoak eta inbertsioak izan zuten bultzada dago ekonomia horren susperraldiaren oinarrian, arlo publikoa gutxitzen ari den une batean. Orobat, Japoniak ezustea eman zuen %2,7ko urte arteko tasa batekin, baina datu hori lurrikara eta ondorengo tsunamia gertatu ziren 2011ko epealdiarekin dago alderatuta eta horrek herrialdearen susperraldia benetan dena baino gehiago dela pentsarazten du. Europako herrialdeak, berriz, Alemaniako hazkunde neurritsuaren (%1,2) eta Italiako beherakada biziaren (%-1,3) artean kokatzen dira, tartean Erresuma Batuko (%0,0) eta Frantziako (%0,3) geldotasuna dagoelarik. Zor subiranoaren arazoak, Grezian bereziki larriak baitira, konpontzeko zailtasunek eta bankuen krisiak bete-betean kaltetu dute Europar Batasun osoa, nekez lortu baitu hazkunde positibo bat.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
Europar Batasuna 27	2,0	1,6	2,4	1,6	1,4	0,8	0,1
- EAE	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2	-0,3
- Espainia	-0,1	0,7	0,9	0,8	0,8	0,3	-0,4
- Alemania	3,6	3,1	4,6	2,9	2,7	2,0	1,2
- Frantzia	1,4	1,7	2,2	1,7	1,5	1,2	0,3
- Italia	1,8	0,4	1,0	1,0	0,4	-0,4	-1,3
- Erresuma Batua	2,1	0,7	1,7	0,4	0,3	0,5	0,0
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	3,0	1,7	2,2	1,6	1,5	1,6	2,0
Japonia	4,4	-0,7	-0,1	-1,7	-0,6	-0,5	2,7
Txina	10,4	9,2	9,7	9,5	9,1	8,9	8,1
India	10,6	7,2	6,2	9,0	6,9	6,2	5,6
Errusia	4,3	4,3	3,9	3,5	5,1	4,6	4,9
Brasil	7,5	2,7	4,1	3,3	2,2	1,4	0,7


Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Europako aurreikuspenek okerrera egin izanak bere dirua zigortu du, dolarraren aldean balioa galdu baitu berriro. Hain zuzen ere, euroaren kotizazioa 1,32 dolarretan zegoen maiatzaren 1ean eta 1,24 dolarretara jaitsi zen hileko horren azken egunean, ekainean zehar zertxobait suspertu bada ere. Guztira, azken urtean europar dibisak bere balioaren hamarrena galdu du. Balio galera horrek eragin nabarmena dauka petrolioaren erosteko orduan ordaintzen den

salneurrian, etorkizuneko eskariaren gaineko igurikimen okerragoek merkatu zuten arren, lehengai horren inportazioko kostuetara osorik ez baita igaro. Hala eta guztiz ere, martxoan izan zituen prezio gorenetatik urruntzeko balio izan du (upelaren balioa 95eurotik maitatzeko 86ra jaitsi zen).

Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Europak nozitzen duen zailtasuneko testuinguru horretan, EAEko ekonomiak 2012ko lehen hiruhilekoan $-0,3\%$ ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen, zazpi hiruhilekoz hazkunde positibo txikiak lortu ondoren. Beraz, berriro atzeraldi batean sartu dela egiaztatuta geratu da. Beste hiruhileko batez, datuek adierazten dute barne eskariak indarra kendu ziola BPGari, kanpo saldoak barne merkatuaren ahultasuna neurri batean konpentsatzen duen bitartean. Hala ere, kanpo arloaren ekarpena sei hamarrenera mugatu zen, aurreko hiruhilekoaren erdia baino ez dena, EAEko esportazioen helburua diren merkatu nagusietan hedatu zen geldotasunaren ondorioz.

Barne eskariak berriro beherakada garrantzitsu bat ($-0,9\%$) izan bazuen ere, hamarren bat hobetu zuen aurreko hiruhilekoaren aldean. Agregatuaren osagaien artean, kontsumo publikoak bakarrik lortu zuen aurreko hiruhilabetekoa baino balio positiboago bat, aldagai horren bultzada oso mugatua izan zen arren ($0,2\%$). Antzeko emaitza eskuratu zuen kontsumo pribatuak ($0,1\%$), ezinezkoa baitu gora egitea langabezia handiko, konfiantza ezeko eta kredituak lortzeko zailtasuneko testuinguru batean. Dena dela, hiruhilabeteko emaitzarik

etsigarriena kapital eraketa gordinarena izan zen (%-4,2), eraikuntzan eginiko inbertsioaren beherakadari ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren makaltasuna gehitu baitzaio, industriaren salneurriak galgatu diren une batean.

Izan ere, manufakturek %1,1 gutxitu zuten balio erantsia aurtengo hasieran, europar ekonomia gehienetan gertatzen ari den ahultasuneko prozesu batean. Eraikuntzak, berriz, beste urrats bat eman zuen atzera eta urtebete batean bere balio erantsiaren %5,9 galdu zuen, obra zibilaren jaitsierarengatik eta etxegintzak suspertzeko zantzu batzuk eskaini zituen arren. Urte arteko tasa positibo bat eskuratu zuen nekazaritzaz kanpoko sektore bakarra zerbitzuak izan ziren (%0,2), baina hauek ere aurreko hiruhilekoetan baino gutxiago hazi ziren. Eskariaren ahultasuna begi bistakoa da merkatuko zerbitzuetan (%0,1), gelditasunetik hurbil baitaude. Aitzitik, merkaturatzen ez diren zerbitzuek nabarmen hobetu zuten laugarren hiruhilabeteko datu negatiboa eta %0,4ko tasa lortu zuten. Dena dela, defizita murrizteko konpromisoak aldagai hori balio negatiboetara itzularaz dezake datozen hiruhilekoetan.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2	-0,3
Enplegua	-0,9	-0,6	-0,1	-0,4	-0,7	-1,3	-1,7
Ekoizkortasun irabaziak	1,2	1,2	1,0	1,1	1,3	1,5	1,4
Langabezia tasa	9,2	10,8	10,7	10,9	10,6	11,2	12,1
Kontsumoko prezioen indizea	1,7	3,1	3,4	3,4	2,9	2,7	2,0

Iturria: Eustat eta INE.

Barne produktu gordinaren erorialdiak enpleguaren galera areagotu du, lehen hiruhilekoan lanpostuen %1,7ra hedatu baitzen, aurreko datua lau hamarrenetan gaindituz. Tasa horrek adierazten du 16.200 lanpostu galdu direla azken urtebetean. Horren ondorioz, langabezia tasa ia puntu oso bat igo zen eta %12,1ean kokatu, Europako batez bestearen gainetik (%10,8 zen Eurogunean). Enpleguaren beherakada produktibitatea hobetzen laguntzen ari da, %1,4 hazi baitzen. Balio hori batez beste historikoa baino apur bat altuagoa da, baina apal samarra da enplegua galdu zen garaiak bakarrik hartzen badira kontuan. Azkenik, eskariaren ahultasunak eta petrolioaren prezioak izan zuen moteltzeak inflazioa maila apalagoetara zuzentzen lagundu dute. Hain zuzen ere, kontsumoko prezioak %2,0an kokatu ziren lehen hiruhilekoan, Eurogunekoak baino zazpi hamarren beherago.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenek narriadura datozen hiruhilekoetan areagotuko dela iragartzen dute, baliorik negatiboena aurtengo bigarren seihilekoan jasoko baita. Beraz, martxoan aurreikusi zen irteteko perfila atzeratu da, baina 2012ko batez besteko jaitsiera tasa (%-1,3) bere horretan gelditzen da. Hala ere, aldaketak badaude 2013ko lehen hiruhilekoetarako aurreikuspenean, orain negatiboagoa baita, eta hazkunde positiboko lehen datua urte horretako hirugarren hiruhilekora atzeratzen du.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENAK 2012RAKO ETA 2013RAKO

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2012			2012	2013		
	II	III	IV		I	II	III
BPG erreala	-1,2	-1,7	-1,7	-1,3	-1,4	-0,5	0,1
BPGren deflatoarea	1,4	1,3	1,4	1,3	1,4	1,5	1,6
Enplegua	-2,5	-2,4	-2,1	-2,2	-1,9	-1,4	-0,7
Langabezia tasa	12,5	12,7	12,7	12,5	12,8	12,8	12,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Beste behin ere, ekonomiaren bultzada kanpotik etorriko dela iragartzen da. Hala ere, inguruneko ekonomiek erakusten duten ahultasunak zailago egingo du hazkundera esportazioen bidez lortzea. Beraz, datozen hiruhilekoetan kanpo arloak hazkunderari egingo dion ekarpena oso txikia izango da, pare bat hamarrenekoa edo. Barne eskariak, berriz, balio negatiboak jasoko ditu osagai guztietan, bereziki kapitaleko eraketa gordinen, enpresen igurikimenak okertu direlako eta obra zibila oso bizkor gutxitu delako. Aurrekoaren ondorioz, industriaren eta eraikuntzaren balio erantsia oso tasa negatibotan kokatuko dira. Halaber, kontsumoaren indar ezak eta industria arloko enpresen egoera zailak merkaturatzen diren zerbitzuen berrerortzea eragingo dute, 2011. urtean lortutako igoeraren ondoren.

Ekoizpen jarduerarako aurreikusi den okertzearen ondorioz, enplegu galerak oraingo aurreikuspen aldi osoan jarraituko du. 2012. urteko batez besteko beherakada %2,2 izango da eta 21.000 lanpostu inguru desagertuko dira. Horrek %12,5era igoaraziko du langabezia tasa 2012an eta hamarren batzuk gehiago igoko da 2013. urtean zehar. Azkenik, prezioek bilakaera apala erakutsiko dute, eskariak, hala barnekoak nola kanpokoak, presiorik egingo ez duelako. Hori horrela izanda, deflatoarea %1,3an kokatuko da urteko batez bestean, eta zertxobait gehiago haziko da ekonomiaren susperraldia finkatuko den heinean.


EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua


2012ko lehen hiruhilekoan, munduko ekonomiak duela bi urte hasi zuen moteltzeko joera leundu zuen eta %3aren zertxobait gainera hazi zen. Garatutako eremu nagusien artean, AEBek eta Japoniak aurrekoa baino hazkunde tasa handiagoak lortu zituzten, Europar Batasunak bere ekonomiaren egoera nabarmen okertu zuen bitartean, gelditasunetik hurbil kokatu arte. Garapen bidean dauden ekonomien BPGak ere erritmoa galdu zuen, baina ekonomia aurreratuenak baino sendoagoa izaten jarraitu zuen.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna 27



Txina



India



Iturria: Eurostat, ELGE, NDF eta The Economist.

Txinako ekonomiak bosgarren hiruhilekoz jarraian moteldu zuen bere hazkunde tasa eta %8,1 hazi zen. Tasa hori, garrantzitsua izan arren, azken hiru urteko apalena da. Barne eskariaren bizitasun txikiagoak eta kanpo eskariaren moteltzeak, ekonomia aurreratu batzuen, eta bereziki europarren, ahultasunak eraginda, -esportazioak %7,7 hazi ziren 2012ko lehen hiruhilekoan, 2011ko azken hiru hilekoetan %14,3 areagotu ziren bitartean- hazteko erritmo motelago hori azaltzen dute. Oraingoz, Txinak hazkunde tasa indartsuei eusten badie ere, bertako gobernua BPGaren 2012rako aurreikuspenak %7,5era beheratu ditu, ekonomia gero eta gutxiago hazten ari dela agerian utziz. Prezioak jardueraren gehikuntza txikiago horretaz baliatu ziren eta apirilean %3,44ra murriztu zuten urte arteko tasa, azken bi urteko bigarren baliorik txikiena baita.

AEBen hazkunde biziagoak eta Japoniak jaso zuen susperraldi ikusgarriak Europar Batasunaren geldotasuna konpentsatu zuten. Hori dela eta, ELGE erakundeko ekonomia %1,6 hazi zen, 2011ko azken hiruhilekoko tasa baino bi hamarren gehiago. Zehazkiago adierazita, AEBak %2,0 sendo bat hazi ziren eta 2011ko bigarren sei hilekoan hasi zen hazkunde areagotzeko joerari jarraipena eman zion. Kontsumo pribatuak eta etxegintzan eginiko inbertsioak politika hedakorrei txanda hartu zieten eta, aldi berean, kanpo arloak hamarren batzuk ekarri zizkion hazkundeari. Lan merkatuak estatubatuar ekonomiaren bilakaeraren sendotasuna zuzen irudikatu zuen. Hain zuzen ere, apirilean ia 120.000 lanpostu garbi sortu ziren eta langabezia tasa %8,1era jaitsi, hori baita 2009ko otsailetik inoiz izan den txikiena, nahiz eta maiatzean hamarren bat igo zen. Azkenik, inflazioak 2011ko irailean hasitako beheranzko joera leunari eutsi zion eta maiatzean %1,7an zegoen.

2012ko lehen hiruhilekoan, Japoniak atzean utzi zuen etengabeko beherakaden urtebete bat. Kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bultzadak, 2011ko martxoan Japoniako ipar-ekialdea hondatu zuten lurrikarak eta tsunamiak kaltetutako lurraldeak suspertzeko gobernuak bideratu zituen inbertsioei esker, eta kontsumitzaileen gastuaren sendotasunak BPGaren gehikuntza tasa %2,6ra igoarazi zuten. Aipamen berezia merezi du hazkunde barne eskariaren sendotasunean bakarrik oinarritu izana, kanpo arloak, esportazioak zertxobait areagotu baziren ere, ez baitzion hamarrenik ekarri hazkundeari. Kontsumo pribatuaren gorakada horrek prezioak apirilean %0,5 haztea ahalbidetu zuen, lehen aldiz 2008ko amaieratik lau hilabetez jarraian kontsumoko prezioen indizeak hazkunde tasa positiboak lortuz. Azkenik, langabezia tasak nahiko egonkor jarraitu zuen eta apirilean %4,6an kokatu zen, azken sei hilabeteetako batez bestearekin bat eginez.

Europar Batasunak okertze orokorra izan zuen eremua osatzen duten herrialdeen hazkunde erritmoan eta 2012ko lehen hiruhilekoan BPGaren bilakaera %0,1era jaitsi zuen. Tasa hori aurreko hiruhilabetekoa baino zazpi hamarren txikiagoa da eta atzeraldi betean (2008-2009 epealdian) jaso ziren beherakadak albo batera utzita, eremua osatu zenetik inoiz jaso den

txikiena da. Hala eta guztiz ere, Eurogunearen bilakaera are okerragoa izan zen. Eremu hori osatzen duten 17 ekonomietatik oraingo 15entzat eskura dauden datuek erakusten dute haietako seik bakarrik lortu zituztela hazkunde positiboak. Are gehiago, herrialde kideek nozitu zuten narriadura hain handia izan zen ezen gutxienez haietako seik (Grezia, Italia, Txipre, Herbehereak, Portugal eta Eslovenia) bigarren hazkunde tasa negatiboa kateatu baitzuten. Bigarren jaitsiera horrek atzeraldi teknikoan kokatzen ditu berriro.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2010	2011	2011				2012		
			I	II	III	IV	I	Apirila	Maiatza
BPG erreala									
AEB	3,0	1,7	2,2	1,6	1,5	1,6	2,0	---	---
Japonia	4,4	-0,7	-0,1	-1,7	-0,6	-1,5	2,7	---	---
Europar Batasuna 27	2,0	1,5	2,3	1,6	1,4	0,8	0,1	---	---
- Alemania	3,7	3,0	4,6	2,9	2,7	2,0	1,2	---	---
- Frantzia	1,7	1,7	2,4	1,7	1,5	1,2	0,3	---	---
- Erresuma Batua	2,1	0,7	1,5	0,4	0,3	0,5	-0,1	---	---
Inflazioa									
AEB	2,4	3,3	2,1	3,4	3,8	3,3	2,8	2,3	1,7
Japonia	-0,7	-0,3	-0,5	-0,4	0,1	-0,3	0,3	0,5	---
Europar Batasuna 27	2,1	3,1	2,9	3,2	3,1	3,2	2,9	2,7	2,6
- Alemania	1,2	2,5	2,2	2,5	2,7	2,7	2,4	2,2	2,2
- Frantzia	1,7	2,3	2,0	2,2	2,3	2,6	2,6	2,4	2,3
- Erresuma Batua	3,3	4,5	4,1	4,4	4,7	4,7	3,5	3,0	---
Langabezia tasa									
AEB	9,6	8,9	9,0	9,0	9,1	8,7	8,3	8,1	8,2
Japonia	5,1	4,6	4,8	4,6	4,4	4,5	4,5	4,6	---
Europar Batasuna 27	9,7	9,7	9,5	9,5	9,7	10,0	10,1	10,3	---
- Alemania	7,1	5,9	6,3	6,0	5,8	5,6	5,6	7,6	---
- Frantzia	9,8	9,7	9,6	9,6	9,7	9,8	10,1	10,2	---
- Erresuma Batua	7,8	8,0	7,7	7,9	8,2	8,3	8,2	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Europar Batasunaren ekonomiak bizi zuen egoera zailak berezko hazkunde ereduak bilatzera behartu zituen herrialdeak. Hain zuzen ere, Alemaniak eredu orekatu batean oinarritu zuen bere hazkundera, zeinean bi eskariek ekarpenak egin baitzizkioten BPGari. Kontsumo pribatuaren egonkortasunak eta kontsumo publikoaren sendotasunak, inbertsioaren ahulezia

konpentsatu baitzuten, eta esportazioen bultzadak %1,2ra eraman zuten ekonomia jardueraren gehikuntza tasa, eremuko emaitzarik onenetakoa baitzen. Frantzian, ordea, kanpo arloak bultzatu zuen barne produktu gordina (%0,3), esportazioen gorakadari esker, kontsumo pribatuaren jaitsierak barne eskariak hazkunderari hamarrenak kentzera eraman zuen bitartean. Erresuma Batuan, kontsumo publikoak eta inportazioak bakarrik lortu zituzten tasa positiboak eta, hori dela eta, bi eskariak hamarrenak kendu zizkieten jarduerari. Horren ondorioz, bertako BPG %0,1 jaitsi zen.

Azkenik, garatzen ari den Europa, azken hilekoetan moteltzeko joera saihestu bazuen ere, 2012ko lehen hiruhilekoan gutxiago hazi zen. Izan ere, eremu hori osatzen duten herrialde guztiek apaltzeko joera bizia erakutsi zuten eta haietatik erdiak hazkunde tasa negatiboak izan zituzten.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasak 2011ko bigarren seihilekoan hasi zuen goranzko joerari jarraipena eman zion eta apirilean %10,3ra iritsi zen, ordura arte inoiz jaso den mailarik gorena baita. Tasa horrek adierazten du 24,6 milioi lagun daudela lanik gabe. Hala eta guztiz ere, alde handia dago herrialde batzuen eta besteen langabezia tasen artean eta, esate baterako, apirilean, mutur batean, Austriako langabezia tasa %3,9an zegoen eta, beste muturrean, Espainiakoa %24,3an. Prezioek, berriz, hazkundera gutxitzen jarraitu zuten eta Europar Batasuneko KPI %2,6an kokatu zen maiatzean. Berririo ere, herrialdeen arteko aldeak oso handiak izan ziren. Alemanian, Frantzian eta Espainian inflazioa %2,0aren inguruan zegoen bitartean, Europar Batasuneko kide berrien artean ezberdintasun handiak hauteman ziren. Izan ere, azken talde horren barruan, KPIaren gehikuntza Errumaniako %1,8aren eta Hungariako %5,4aren artean kokatu zen.

Munduko ekonomiaren moteltzeak eragina izan zuen oraindik ahula zen espainiar ekonomian eta bertako BPG %0,4 jaitsi zen. Murrizketa hori Espainiak azken mende erdian izan duen atzeraldi sakonena eta luzeena 2010eko hasieran itxi eta bi urtera gertatu da. Kapital finkoan eginiko inbertsioaren jaitsierak eta gastu publikoaren murrizketa areagotu izanak barne eskariaren beherakada bizkortu zuten, hazkundera 3,2 puntu kenduz. Aldi berean, esportazioek bizitasuna galdu zuten eta kanpo arloaren ekarpena txikiagoa izan zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, nekazaritzaz bestelako ekoizpen adar guztiek emaitza okerragoak izan zituzten. Nabarmentzekoak dira, izan zuten bilakaera txarrarengatik, industria, jaitsiera areagotu zuelako, eta, bereziki, eraikuntza, %-5,3ko galera jaso zuelako. Jardueraren narriadura lan merkatura hedatu zen eta enplegua %3,8 jaitsi zen, azken bi urteko emaitzarik txarrenea baita. Nekazaritzan, eraikuntzan eta zerbitzuetan lanpostuen galera areagotu zen eta industrian, berriz, enpleguaren narriadura egonkorra izan zen. Aurreko guztiaren ondorioz, urtebete

bateko epealdian, lanaldi osoko 655.000 lanpostu garbi galdu ziren. Inflazioak, berriz, igoerak leuntzen jarraitu zuen eta KPI indizea %1,9an kokatu zen maiatzean.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
Azken kontsumoko gastua	0,6	0,7	0,4	-0,8	-0,6	-1,8	-1,8
- Familien gastua	0,7	-0,1	0,4	-0,3	0,5	-1,1	-0,6
- Administrazioaren gastua	0,2	-2,2	0,6	-2,1	-3,6	-3,6	-5,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	-6,3	-5,1	-4,9	-5,4	-4,0	-6,2	-8,2
- Aktibo finko materialak	-6,4	-5,4	-5,3	-5,6	-4,3	-6,5	-8,8
- Eraikuntzan	-10,1	-8,1	-9,2	-8,1	-7,0	-8,2	-10,2
- Ekipamendurako ondasunetan	5,1	1,4	5,5	1,0	2,2	-2,7	-5,9
- Aktibo finko inmaterialak	-4,8	0,0	1,5	-3,1	2,0	-0,3	2,2
Nazio eskaria (*)	-1,0	-1,8	-0,8	-1,9	-1,4	-2,9	-3,2
Esportazioak	13,5	9,0	13,1	8,8	9,2	5,2	2,2
Inportazioak	8,9	-0,1	6,0	-1,3	0,9	-5,9	-7,2
BPG (m.p.)	-0,1	0,7	0,9	0,8	0,8	0,3	-0,4
Nekazaritza eta arrantza	-1,1	0,6	1,1	0,5	0,4	0,3	0,8
Industria	0,6	1,9	3,0	2,3	2,8	-0,4	-3,0
Eraikuntza	-7,8	-3,8	-4,9	-3,2	-3,2	-3,7	-5,3
Zerbitzuak	1,4	1,1	1,4	1,0	1,0	0,9	0,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,2	1,7	1,2	2,5	1,3	2,0	1,5
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	1,8		3,5	3,5	3,1	2,8	2,0
- Enplegua (**)	-2,6	-2,0	-1,6	-1,3	-2,0	-3,3	-3,8

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuen arabera, administrazio publikoen defizita, apirillean, %1,43 izan zen termino homogeneousan, aurreko urteko epealdi berean %1,51 izan zen bitartean. Diferentzia horrek esan nahi du Estatuko defizita gutxi gorabehera 1.000 milioi eurotan jaitsi dela. Kontabilitate nazionalako terminoetan, transferentzia bidezko gastu jakin batzuen egikaritze aurrerapenak eta zerga itzulketak kontuan hartzen ez baititu, defizita BPGaren %2,39ra iritsi zen, Gobernuak kalkulatu zuenarekin bat eginez.

Ekoizpena eta eskaria

Ekonomia berriro atzeraldian sartuko zelako beldurra bete da, Eustatek 2012ko lehen hiruhilekorako argitaratu dituen kontu ekonomikoen datuek baieztatu dutenez. Estatistika horren estimazioek zehazten dute EAEko barne produktu gordina %0,3 jaitsi zela 2012ko lehen hiru hilekoetan. Tasa hori narriadurako joera batean kokatzen da, zeinean dagoeneko bi hiruhilekoz jarraian hiruhileko arteko tasak negatiboak izan baitira. EAEko ekonomiaren okertzea barne eskariaren narriadura biziaren eta kanpo eskariaren bizitasun txikiagoaren ondorioa izan da.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
Barneko azken kontsumoa	1,2	0,3	0,9	0,5	0,3	-0,4	0,1
- Familien gastua kontsumoan	0,9	0,6	0,8	0,3	0,9	0,5	0,1
- Herri administrazioen gastua	2,3	-0,8	1,3	1,3	-2,0	-3,6	0,2
Kapital eraketa gordina	-6,0	-1,5	-1,8	-1,0	-0,2	-2,8	-4,2
Barne eskaria	-0,5	-0,1	0,3	0,2	0,2	-1,0	-0,9
Esportazioak	7,6	9,0	13,3	3,2	12,4	7,3	-2,3
Inportazioak	5,5	7,4	11,6	2,1	11,1	4,9	-3,5
BPG (m.p.)	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2	-0,3
Lehen arloa	24,7	-7,6	-13,9	-16,0	-21,6	16,9	18,0
Industria	1,8	2,1	3,7	3,3	1,5	-0,2	-1,1
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-4,6	-5,6	-6,0	-4,8	-5,9
Zerbitzuak	0,6	0,9	0,8	1,0	1,3	0,6	0,2
Balio erantsi gordina	0,1	0,7	1,0	0,9	0,6	0,1	-0,5
Ekoizkinen zerga garbiak	2,0	0,2	0,0	-0,5	0,3	0,9	0,8

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek, zerbitzuek izan ezik, behera egin zuten hiruhilekako bilakaeran. Izan ere, industriak beherakada handia jaso zuen 2012ko lehen hiruhilekoan eta egoeraren okerragotze horrek 2011ko azken hilekoetan igartzen zen ahultasuna baieztatu du. Eraikuntzak ere beheranzko dinamika horretan sartu zen eta aurreko urteko batez bestea baino gehiago gutxitu zuen bere balio erantsia. Zerbitzuek, berriz,

hazkunde tasa positibo bat lortu zuten, baina oso txikia eta aurreko hiruhilekoen aldean moteltzeko joera erakutsi zuten.

Eskariari dagokionez, familien kontsumoa apaldu egin zen 2012ko urtarriletik martxora bitartean eta hazkunde positibo txikia lortu zuen arren, gelditasunetik hurbil kokatu zen. Ezkertasuna da nagusi kontsumitzaileen artean, langabezia tasak altuak direlako eta epe laburreko aurreikuspenak negatiboak direlako, eta horrek gastatzeko erabakiak geroratzea dakar berarekin. Administrazio publikoen kontsumoak bizi duen murrizketa zertxobait erlaxatu zen 2012ko hasieran eta oso litekeena da datozen hiruhilekoetan hazkunde tasa negatiboak berriro agertzea osagai horren bilakaeran. Enpresarien igurikimenek ere okerrera egin dute azken hilabeteetan eta horrek kalte handia eragin du EAEko inbertsioaren bilakaeran.

Ekoizpen jarduera


EAEko lehen arloaren balio erantsia nabarmen areagotu zen 2012ko lehen hiruhilekoan eta urte arteko hazkunde tasa %18,0an kokatu zen. 2011ko hiruhileko beraren aldean emaitza bikaina lortu zuen arren, nekazaritza eta arrantza biltzen dituen sektoreak atzerakada garrantzitsua izan zuen aurreko hiruhilekoaren aldean. Hain zuzen ere, hiruhileko arteko tasa %-41,3an estimatu zen.

Industriak nabarmen okerrera egin zuen 2012ko lehen hiruhilekoan. Arlo horretako balio erantsi gordina %1,1 gutxitu zen aurreko urteko epealdi beraren aldean. Alde batetik, barne eskariaren bizitasun galera eta, beste aldetik, inguruneko herrialdeen, bereziki Europako herrialdeen, moteltzea izan ziren EAEko industriak pairatu zuen narriaduraren arrazoi behinenak. Sektore horretako koiuntura adierazle guztiek aurreratu zuten kontu ekonomikoek azkenean baieztatu duten narriadura hori. Esate baterako, industria produkzioaren indizeak beheranzko joera garbia erakutsi zuen urtarriletik martxora bitartean eta okertze horrek helburu ekonomikoaren arabera sailkatuta dauden talde guztietan izan du eragina.


Industriaren adarrak aztertzen direnean, beherakada orokorra izan zela 2012ko lehen hiruhilekoan hautematen da. Hala ere, epealdi horretan erakutsi zuten bizitasun handiagatik badaude nabarmendu behar diren jarduera adar batzuk. Hala nola, material eta ekipamendu elektronikoa, ehungintza, oihaigintza, larrugintza eta oinetakoak, elikagaien industria, edariak eta tabakoa, eta, oso bereziki, makineria eta ekipamendua. Azken talde honek hazkunde handia lortu zuen, EAEko balio erantsiarentzat oso garrantzitsua dena, autonomia erkidegoaren industria egituran pisu handia duelako.

Ekonomia arloen balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasak


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			2012		
			II	III	IV	I	Apirila	Maiatza
Industria								
Balio erantsi gordina	1,8	2,1	3,3	1,5	-0,2	-1,1	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	2,3	0,8	2,0	-0,1	-2,4	-4,9	-6,2	---
Industria giroaren indizea	-20,3	-12,3	-9,0	-15,5	-15,8	-19,5	-23,9	-20,6
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	69,8	75,1	75,0	74,8	78,6	76,4	---	72,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,3	-2,2	-1,8	-2,2	-2,6	-3,3	-4,2	-4,2
Eraikuntza								
Balio erantsi gordina	-9,8	-5,3	-5,6	-6,0	-4,8	-5,9	---	---
Eraikuntzaren indizea	-16,9	-10,1	-14,9	-4,3	-12,9	-22,4	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-1,4	-8,3	2,1	7,8	-53,6	-22,3	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	25,4	-20,0	-27,6	-31,9	-18,9	-16,7	-23,2	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-7,5	-8,6	-8,4	-9,1	-9,7	-11,1	-11,9	-12,1
Zerbitzuak								
Balio erantsi gordina	0,6	0,9	1,0	1,3	0,6	0,2	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,3	2,7	2,3	4,8	3,0	1,0	0,2	11,5
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,3	5,1	7,8	6,6	-1,0	-2,5	-3,3	3,6
Hoteletako okupazioa	43,7	45,9	48,1	61,1	40,5	33,1	47,2	47,7
Negoio zifren indizea	2,8	-0,9	-1,2	-0,4	-4,1	-4,0	-7,3	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,9	0,9	1,2	0,6	0,3	-0,5	-1,2	-1,4

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak enpresarien iritziez argitaratzen duen inkesta ere bat dator industriak izan zuen beherakadarekin. Industria giroaren indizeak hilekoz hileko markatu zuen joerak narriadura garbia erakutsi zuen, eskari zorroz eta ekoizpenaren mailaz zituzten igurikimen negatiboek eraginda. Beste aldetik, ekoizteko ahalmenaren erabilera maila, 2011ko azken hilekoetan gora egin eta gero, moteltzeko norabideari ekin dio eta %72,2an kokatu da.

Eraikuntzak beste beherakada garrantzitsu bat (%-5,9) izan zuen 2012ko hasieran. Hain zuzen ere, dagoeneko 17 hiru hilekoz jarraian gutxitu da eraikuntzaren balio erantsia. Narriadurako epealdi luze horrek agerian uzten du eskaria eta eskaintza egokitzeko bidean jarduera adar horrek dituen zailtasunak. Bide horretan, oztopoak dira kreditu bat lortzeko zurruntasuna, bizitokien prezio altuak eta epe laburreko ziurgabetasunak.

Eraikuntza arloko koiuntura adierazleek jarduera murrizten ari dela seinalatzen dute. Izan ere, Eustatek prestatzen duen eraikuntzaren koiuntura indizeak beherakada esanguratsua jaso zuen, egutegiaren eragina kenduta, %-22,4an estimatu zena. Narriadura bizia bi ataletan nabaritu zen, hots, etxegintzan eta obra zibilean. Jardueraren beheranzko joera erakusten duten beste aldagai batzuk lan merkatuarenak dira. Bai hiruhilekako kontu ekonomikoen enpleguak bai Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek lanpostuen galera adierazten dute, krisiaren hasierako urteetan nozitu zena baino are biziagoa dena. Beste aldetik, higiezin salerosketak aurreko hiruhilekoetako beherakada zertxobait leundu zuen, baina, hala ere, oso jaitsiera garrantzitsua jaso zituen oraindik, hala etxebizitza berrien salerosketan nola bigarren eskuko bizitokietan. Orobat, sektorearen geldotasunak eta kreditua lortzeko zailtasunek etxebizitza bat erosteko eratu ziren hipoteken kopurua jaitsi izana eragin zuten. Hipoteka horien diru kopurua ere oso nabarmen gutxitu zen aurreko urteko hilabete bereetan jaso ziren zenbatekoekin alderatzen bada.

Zerbitzuen jarduerak modu positiboan, baina oso txikian, lagundu zuen EAEko barne produktu gordinaren hazkundean 2012ko lehen hiruhilekoan eta moteltzeko joera garbia erakutsi zuen. Sektore horretako urte arteko hazkundea %0,2an kokatu zen. Zerbitzuen bi osagaiak aztertuta, eta kontuan hartuta hazkunde apala orokorra izan zela, erakunde publikoek eskaintako zerbitzuak izan ziren bizitasun handiena, bere txikian, izan zutenak. Beren hazkunde tasa %0,4 izan zen aurreko urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Merkatuko zerbitzuak, berriz, hazkunde hutsalaren inguruan ibili ziren (%0,1).

Sektorearen adierazleek ere moteltzeko joera bizia islatzen dute 2012ko urtarriletik martxora bitarteko epealdian. Gizarte Segurantzako afiliazioa zerbitzuetako adarretan oso nabarmen gutxitu da eta 2009. urteko mailara itzuli da. Are gehiago, apirilean eta maiatzean lan merkatuaren narriadura hori areagotu zen. Joera hori hiruhilekako kontu ekonomikoetan estimatu zen enpleguan ere hauteman zen, zerbitzuetako lanpostuak %0,1 murriztu zirela seinalatu baitzuen. Jardueraren jaitsiera neurritsua islatu zuen beste adierazle orokor bat INEk argitaratzen duen negozio zifraren bilakaera da, aurtengo lehen hiruhilekoan urte arteko aldakuntza tasa %3,9 jaitsi zelako.

Eustatek egiten duen barne merkataritzako indizeak jaitsiera esanguratsua aurkeztu zuen 2012ko lehen hiruhilekoan, hala handizkako merkataritzan nola txikizkakoan. Turismoari dagokionez, eskura dauden adierazleek sektorearen moteltze arina erakutsi zuten. Hain zuzen ere, hoteletan igarotako gaualdiak gutxitu ziren urte arteko tasan, hala Estatuko gainontzeko erkidegoetatik iritsitako bidaiariak nola atzeritik etorritakoenak. Datu horiek bat datoz AENAk EAEko aireportuetako trafikoaz argitaratu dituen estatistikekin, moteltzeko joera duen hazkunde neurritsua erakutsi zutelako.

Eskariaren osagaiak

Aurreko hiruhilabeteko jaitsieraren ondoren, 2012ko lehen hiru hilekoetan, barneko azken kontsumoak hazkunde tasa zertxobait positiboa (%0,1) lortu zuen, administrazio publikoen portaera hobe bati esker, urte arteko tasan %0,2 hazi zelako, aurreko bi hiruhilekoetan tasa negatibo garrantzitsuak jaso eta gero. Familien kontsumoa, berriz, moteldu egin zen hazkunde tasa %0,1ean utzi arte.

Ekonomiaren etorkizuneko bilakaeraz dagoen ziurgabetasunak eta, oso bereziki, lan merkatuaren narriadurak familien kontsumoa geldiarazi zuten, zuhurtasunaren alde jokatu baitzuten. Txikizkako merkataritzaren indizeak, azalera handietakoak eta turismoen matrikulazioak beherakada hori seinatzen dute eta hazkunde tasa negatiboak etengabe jasotzen dira hiruhilekoz hiruhileko. Era berean, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak argitaratzen duen kontsumitzailearen konfiantza indizeak kontsumitzeko erabakiak geroratzen dituen ezkortasuna seinatzen du.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak


	2010	2011	2011			2012		
			II	III	IV	I	Apirila	Maiatza
Kontsumo pribatua								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,9	0,6	0,3	0,9	0,5	0,1	---	---
BMI txikizkaria	-0,6	-3,7	-3,6	-2,8	-3,2	-2,1	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-0,5	-5,6	-5,6	-5,4	-5,3	-4,5	-5,0	---
Landunak txikizkarian	0,2	-1,8	-1,8	-1,4	-2,5	-2,5	---	---
Automobilien matrikulazioa (*)	-2,9	-24,5	-38,2	-11,2	-11,3	-9,9	-9,8	-9,7
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	83,3	80,0	81,0	74,0	74,0	76,0	---	---
Kapital eraketa gordina								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-6,0	-1,5	-1,0	-0,2	-2,8	-4,2	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	1,0	4,8	5,5	5,9	4,3	-0,8	-4,5	---
IPI ekipamendua Espainia (*)	-2,7	0,0	2,3	0,6	-4,9	-10,6	-12,8	---
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	4,7	1,4	-5,8	2,5	8,4	7,1	---	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	0,9	-18,8	-22,3	-19,5	-14,3	-10,4	-16,1	-19,8

(*) Ziklo-joera seriea.


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eskariaren osagaien bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazio errealak



Inportazio errealak



Iturria: Eustat.

Kapitaleko eraketa gordinak nabarmen egin zuen behera 2012ko lehen hiruhilekoan eta jaitsiera hori, urte arteko tasan, %-4,2an kokatu zen. Inbertsioaren agregatuaren barnean, eraikuntzaren osagaiak erakutsi zuen narriadura handiena epealdi horretan, baina ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak ere aurreko hiruhilekoetako baino bilakaera okerragoa jaso zuen eta beheranzko joera garbia erakutsi zuen. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen inportazioak, batez beste, %7,1 hazi ziren aurtengo lehen hiru hilekoetan. Enpresarien 2012. urterako igurikimenek ekonomia, bereziki nazioarteko merkatuen bizitasun handiari esker, astiro-astiro suspertuko zela iragartzen bazuten ere, gaur eguneko ziurgabetasunak salmenten jaitsiera bat dakar berarekin eta horrek inbertsioaren eta enpleguaren beherakada eragin du. Enpresariak beren jarduera aurrera eramateko orduan seinatzen duten oztipo nagusia eskari eza da berriro, eta baita finantzazioa lortzeko dauden zailtasunak ere.

Kanpo saldoa

2012ko lehen hilekoetan, munduko ekonomiak 2011ko bigarren hiruhilekoan hazi zuen moteltzeko joera areagotu zuen eta, horren ondorioz, nazioarteko merkataritza biziki ahuldu zen. BPGaren gehikuntza txikiago hori bereziki Europako ekonomietan hauteman zen. Hala ere, garapen bidean dauden ekonomiek ere bizitasun galera garrantzitsua nozitu zuten merkataritzako salerosketen erritmoan.


Hain zuzen ere, Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) lehen estimazioen arabera, salgaien munduko esportazioen balioa %5,3 areagotu zen 2012ko lehen hiruhilekoan. Tasa hori aurreko hiruhilekoan lortutakoaren ia erdia da eta 2011ko bigarren hiruhilekoan lortu zen erritmotik ia hogeitun puntu beherago dago, etengabeko moteltze batean. Bizitasun falta ekonomia eremu guztietan nabaritu da, baina guztien artean Europako salmenten (%1,0) geldotasuna nabarmentzen da, batez ere Europar Batasunaren barnean eginikoak (%-2,3). Orobat, deigarria da Asian lortutako emaitza apala (%4,1), Europaren ondoren munduko eremu esportatzaileena baita.

EAEko ekonomiak bete-betean nabaritu zuen merkataritzako bazkide nagusiek bizi zuten moteltzea eta atzerrian egin zituen salmentak bat-bateko beherakada izan zuten aurtengo lehen hiruhilekoan. Hain zuzen ere, esportazioak %0,2 baino ez ziren hazi eta, 2008-2009 epealdia albo batera utzita, garai hartan nazioarteko merkataritza gelditu egin zelako, horixe izan da igoerarik txikiena 2003ko bigarren seihilekotik. Hala eta guztiz ere, esportazioen balioa 5.000 milioi euroetara hurbildu zen eta serie historiko osoaren emaitzarik gorenetakoa bat da. Dena dela, inportazioak izan ziren kaltetuenak. Kontsumo pribatuaren gelditzeak eta inbertsioaren


murrizketak inportazioak %-15,5era hondoratu zituzten. Horren ondorioz, eta salmenten balioa erosketena baino handiagoa izan zenez, EAEko merkataritza superabita 1.220 milioi eurora iritsi zen.

Ondasunen esportazioak Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.

Saldu ziren ekoizkin motei dagokienez, deigarria da energiako produktuen bilakaera, sei hilekoz jarraian oso nabarmen areagotu baitzuten beren pisua esportazioetan, batzutan %100 baino gehiago hazi ziren gehikuntza batzuei esker. Hala ere, 2012ko hasieran, beren

partaidetza batez beste historikotik hurbilago dauden mailetara itzuli zen. Hain zuzen ere, 2011ko laugarren hiruhilekoan, salmenta guztien %16 bildu zituzten, azken hamar urtean batez besteko ehunekoa %7,2an egon zen bitartean.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila €
	2010	2011	2011			2012	2012 I
			II	III	IV	I	
ESPORTAZIOAK							
Guztira	19,6	20,1	2,3	25,5	24,8	0,2	4.997.092
Energetikoak	22,7	55,9	0,2	11,1	104,8	-28,9	335.889
Ez energetikoak	19,3	16,7	2,5	27,3	16,2	3,3	4.661.203
INPORTAZIOAK							
Guztira	25,5	12,1	10,5	11,5	-2,8	-15,5	3.776.206
Energetikoak	24,6	13,0	12,9	9,9	-15,8	-30,2	1.197.492
Ez energetikoak	26,0	11,7	9,2	12,3	4,4	-6,4	2.578.714

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


Orobat, garraio materialak eta metal arruntak eta beren manufakturek ere, salmenten bultzatzaile nagusiak baitira, esportatutako guztia %50 baino gehiago bi atal horiek bereganatzen baitute, beren esportazioak nola gutxitu ziren ikusi zuten, hurrenez hurren %7,7 eta %7,4 gutxitu zirelako. Izan ere, plastikoa eta kautxuaren atalak izan ezik, gainontzeko taldeek beheranzko joera garbia erakutsi zuten. Inportazioei dagokienez, jaitsiera, oso bereziki, produktu mineral eta energetikoen, eta metal arruntaren erosketaren bat-bateko murrizketaren ondorioa izan zen.

Europar Batasuna izan zen berriro EAEko esportazioen helburu nagusia, merkatuaren %66 inguruko kuota bereganatuta. Alemaniako eta Frantziako jarduera ekonomikoa moteldu zen arren, eta Erresuma Batuarena gutxitu bazen ere, eremuaren erosketak %7,6 areagotu ziren. Hazkunde tasa horrek esan nahi du Europar Batasunak 3.297 milioi euro gastatu zituela EAEko produktuetan. Diru kopuru horretatik, %60 baino gehiago Alemaniak, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuak jarri zuten. Erositako ekoizkinei dagokienez, atal guztietako salmentetan jaitsiera bat hauteman zen, baina burdinaren galdaketa eta automobilak nabarmendu ziren. Jaitsiera horiek bereziki Alemaniako eta Frantziako merkatuei eragin zieten, atal horiek EAEko enpresei erositako produktuen %49,2 eta %27,4, hurrenez hurren, biltzen


dutelako. Izan ere, bi urtez jarraian, bi merkatu horietan saldutakoak bi zenbakiko gehikuntza biziak lortu ondoren, EAEko esportazioak herrialde horietara oso azkar moteldu ziren, hurrenez hurren %3,4an eta %4,3an geratu arte.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoak

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2012ko lehenengo hiruhilabeteko datuen arabera.

EAEko ekonomiaren egoera ahulak Europar Batasunetik etorritako inportazioak baldintzatu zituen eta aurreko hiruhilekoan hasitako beheranzko joera areagotu zen, %13,1eko jaitsiera jasoz. Beherakada handi horren oinarrian, burdina galdaketaren eta tresna elektrikoen jaitsiera bizia dago, baina baita gainontzeko taldeetan gertatu zen moteltze orokorra ere. Hala eta guztiz ere, Europar Batasuna izan zen EAEko merkatuaren hornitzaile behinena eta 1.814 milioi euro baino gehiago saldu zion.

EAEko ekoizkinen salmentak estatubatuar merkatuan berriro egin zuen okerrera. 2011ko bigarren hiruhilekoan EAEko esportazio guztien %7,4 bereganatu ondoren, 2012ko lehen laurdenean kuota hori %3,9ra jaitsia zen. Erregai mineralen salmentaren jaitsiera dago egoera horren azpian. Izan ere, hiru urte luzeko epealdian AEBek 100 eta 200 milioi euro bitarteko diru kopuruak gastatu zituzten EAEko erregai mineralak erosteko, baina aurtengo lehen hilekoetan kantitate hori ia hutsala izan zen. Hori dela eta, herrialde horretara esportatutakoaren balioa %39,5 gutxitu zen. Emaizta positiboa Japoniako merkatutik iritsi zen,

non ibilgailu automobilen erosketa garrantzitsuak herrialdean eginiko salmentak %133,4 areagotu baitzituen, aurrekaririk gabeko tasa bat baita. Salmenten ezohiko gehikuntza horren arrazoi nagusia herrialdeak bere ekoizpen kateak osorik berrantolatzekeo dituen zailtasunetan dagoela ematen du.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2012 I	Guztiarekiko ehunekoak
	2010	2011	2011			2012		
			II	III	IV	I		
Esportazioak								
ELGE	21,1	27,3	8,0	32,8	33,2	4,9	3.936.344	78,8
Europar Batasuna 27	22,3	26,3	4,9	36,4	34,4	7,6	3.297.728	66,0
Europako kide berriak	26,4	29,4	4,4	64,9	23,2	15,2	240.320	4,8
Alemania	19,7	25,4	25,1	31,0	14,9	3,4	729.839	14,6
Frantzia	23,5	36,6	9,4	20,7	86,4	4,3	910.511	18,2
AEB	18,1	20,1	11,7	4,2	-1,1	-39,5	193.417	3,9
ELGE ez direnak	15,2	0,3	-13,3	3,8	-0,1	-13,9	1.060.748	21,2
Inportazioak								
ELGE	24,7	9,8	6,2	12,4	11,7	5,4	2.489.063	65,9
Europar Batasuna 27	23,3	7,7	-0,6	11,5	6,0	-13,1	1.814.204	48,0
Europako kide berriak	9,0	19,5	-13,1	52,6	-3,7	-28,1	99.355	2,6
Alemania	22,6	18,3	7,5	22,6	17,8	9,0	491.026	13,0
Frantzia	29,4	12,2	3,2	24,0	0,5	-4,2	415.202	11,0
AEB	6,1	67,4	148,0	111,9	121,5	141,0	196.022	5,2
ELGE ez direnak	36,7	15,3	16,7	10,4	-20,9	-39,0	1.287.143	34,1

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek eginga, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Inportazioen bilakaera oso bestelakoa izan zen. Esate baterako, AEBek EAEn saldu zuten erregai mineralen kopurua hogeitaz biderkatu zen. Aitzitik, Japoniak %19 jaitsi zuen makinak eta tresna mekanikoen salmenta. Aurrekoaren ondorioz, estatubatuar merkatutik iritsi ziren inportazioak %141 areagotu ziren, eta Japoniatik etorritakoek, berriz, %8,5 egin zuten behera.

ELGE erakundean parte hartzen ez duten herrialdeekin gauzatu ziren merkataritza harremanak ez ziren horren onak eta eremu horretara bideratutako esportazioak %13,9

murriztu zen guztira. Hala ere, EAEko produktuak erosten dituzten herrialde nagusiek ez zuten horrelako bilakaera negatiborik erakutsi. Txinako merkatuan, makinak eta tresna mekanikoen esportazioen gehikuntzak ibilgailu automobilen salmentaren jaitsiera bizia konpentsatu zuen. Beraz, Asiako erraldoira zuzendutako salmentak %17,4 hazi ziren. Errusian, berriz, erreminta eta lanabesen, eta makinak eta tresna mekanikoen salmentak lagundu zuten eremu horretara esportatutakoa %5,0 hazten.

Inportazioei dagokienez, murrizketa orokorra izan zen. EAEko eragileek Errusian, Txinan eta Brasilen 1.200 milioi euro inguru balio zuten produktuak erosi ondoren, 2012ko lehen hilekoetan diru kopuru hori erdira iristen ez den kantitate batean utzi zuten. Arrazoi nagusia erregai mineralen erosketa Errusiatik AEBetara desbideratu izana da. Horren ondorioz, Errusiatik inportatutakoa %67,2 jaitsi zen –EAEko enpresei saldutako guztiaren %77 erregai mineralak ziren-. Orobat, galdaketa eta beraren manufakturen erosketa jaitsi izanak Txinatik inportatutakoa kaltetu zuen, %5,1 gutxitu zirelako. Brasileko merkatuan, berriz, produktu kimiko eta burdina galdaketa gutxiago erosi zen eta horrek inportazioak %62,5 jaitea eragin zuen.


Lan merkatua

EAEko lan merkatuak narriadura areagotu zuen 2012ko lehen hiruhilekoan, enpleguaren galera nabarmen emendatu zelako eta langabeziak berriro gora egin zuelako. Lan merkatuaren narriadura hori bat dator ekonomia jarduerak, hala autonomia erkidegoan bertan nola merkataritza harreman estuenak dituen inguruko herrialdeetan, azken hilekoetan nozitu zuen okertzearekin.


Lan merkatuaren bilakaera txar hori berau aztertzeko erabiltzen diren estatistika iturri guztiek baieztatu zuten. Izan ere, guztiek jaso zituzten aurreko hiruhilekoak baino enplegu galera askoz handiagoak. Eraitza txarrenak INEren BAI inkestak eskaini zituen, gainontzeko estatistiketatik oso urrun, %4,8ko beherakada estimatu zuelako. Tasa horrek 2002. urtetik inoiz izan den mailarik apalenean kokatu du landunen kopurua. Erregistro horren ondoren, Eustaten BJAk zenbatetsi zuena (%-2,9) kokatu zen, aurreko hiruhilekoan susperraldi arina erakutsi eta gero, jaitsiera sakonagoa jaso baitzuen aurtengo lehen hiruhilekoan. Azkenik, bai kontu ekonomikoek bai Gizarte Segurantzako afiliazioak beherakada txikiagoak (%-1,7) eskaini zituzten. Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhilabeterako dagoeneko ezaguna den afiliazioaren informazioak galera handiagoa iradokitzen du epealdi horretarako.

Enpleguaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Hiruhilekoka balioesten diren kontu ekonomikoen arabera, ekonomiaren sektore guztiek gutxitu zuten langileen kopurua lehen hiruhilekoan, baina bereziki deigarria da eraikuntzaren beherakada (%-11,7), lau urtez jarraian enplegua galtzen egon ondoren. Arlo hori osatzen duten bi atalak, hots, obra zibila eta etxegintza, egoera zailean daude eta horrek enpleguaren doikuntza ekarri du. Industriak, berriz, erritmo garrantzitsuan (%-3,0) gutxitu zuen bere enplegua, aurreko hiruhilekoan baino zertxobait gehiago, munduko merkataritzaren moteltzeak eta finantza arloko tentsioen areagotzeak kaltetuta, ziurgabetasuna biziagotu zutelako eta inbertsioko egitasmoen eragin zitelako. Azkenik, zerbitzuek lanpostuak sortzeari

utzi zioten eta balio zertxobait negatibotan (%-0,1) kokatu ziren, lehenengo aldiz 2009. urte amaieratik.

ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			2012
			II	III	IV	I
Enplegua guztira	-0,9	-0,6	-0,4	-0,7	-1,3	-1,7
<i>Produktibitatea guztira</i>	1,2	1,2	1,2	1,3	1,5	1,4
Enplegua lehen arloan	-1,0	-3,9	-4,5	-2,9	-2,2	-0,3
<i>Produktibitatea lehen arloan</i>	26,0	-3,9	-12,0	-19,3	19,5	18,4
Enplegua industrian	-3,6	-1,9	-1,5	-2,1	-2,4	-3,0
<i>Produktibitatea industrian</i>	5,6	4,1	4,9	3,7	2,3	2,0
Enplegua eraikuntzan	-6,9	-7,8	-7,6	-8,0	-9,7	-11,7
<i>Produktibitatea eraikuntzan</i>	-3,1	2,7	2,2	2,2	5,4	6,6
Enplegua zerbitzuetan	0,9	0,9	1,1	0,7	0,2	-0,1
<i>Produktibitatea zerbitzuetan</i>	-0,3	0,0	-0,1	0,6	0,4	0,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustaten datuetan oinarrituta.

Enpleguaren (%-1,7) eta ekonomia jardueraren (%-0,3) bilakaera horien ondorioz, produktibitatearen irabazia %1,4an kokatu zen, aurreko hiruhilekoan lortutako tasatik hurbil. Beste hiruhileko batez, azpimarratzekoa da eraikuntzak izan duen produktibitate sendoa (%6,6), normalean aldagai horrek oso balio apalak jasotzen baditu ere. Enpleguaren galera dago eraginkortasunaren hobekuntza horren oinarrian. Industrian lortutako irabazia ere positiboa izan zen, baina txikiagoa (%2,0), ohikoak diren bere balioetatik hurbil. Azkenik, zerbitzuek hamarren gutxiko irabazia (%0,3) lortu zuten.

Beste hiruhileko batez, enplegu galera handienak eraikuntzan eta industrian gertatu izanak bereziki gizonei egin zien kalte. Izan ere, BJA inkestaren datuen arabera, gizon landunen kopurua %4,1 jaitsi zen urte arteko tasan eta emakumeena, berriz, %1,6 baino ez, azken hauek bereziki zerbitzuetako jardueretan aritzen direlako. Bi ehuneko horien arteko aldea handia den arren, enplegu tasa aztertuta, lanpostuen galerak eragin handiagoa izan zuen emakumeen artean, lan merkatuan arrakastaz parte hartzeko erakutsi duen joeran atzera pausu bat eman zutelako. Hain zuzen ere, emakumeen enplegu tasa puntu bat jaitsi zen eta %43,4an kokatu, gizonen enplegu tasa %54,4ra apaldu zen bitartean.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoa

	2010	2011	2011			2012
			II	III	IV	I
Partaidetza tasa guztira	55,9	56,2	56,6	56,0	55,8	55,4
- Gizonak	64,0	63,2	63,4	63,1	62,5	62,2
- Emakumeak	48,3	49,5	50,0	49,3	49,4	49,0
- 16 urtetik 24ra	31,9	30,3	31,4	29,8	28,1	29,2
- 25 urtetik 44ra	87,3	87,6	88,1	87,8	87,0	86,7
- 45 urte eta gehiago	39,3	40,2	40,4	39,9	40,4	40,0
Enplegu tasa guztira	50,8	50,1	50,4	50,1	49,5	48,7
- Gizonak	57,8	56,1	56,8	56,0	54,9	54,4
- Emakumeak	44,2	44,4	44,4	44,5	44,4	43,4
- 16 urtetik 24ra	23,9	23,0	24,0	23,3	21,3	21,4
- 25 urtetik 44ra	78,9	77,1	77,5	77,4	75,9	75,1
- 45 urte eta gehiago	36,8	37,2	37,3	36,9	37,3	36,6
Langabezia tasa guztira	9,2	10,8	10,9	10,6	11,2	12,1
- Gizonak	9,6	11,3	10,5	11,3	12,1	12,6
- Emakumeak	8,6	10,3	11,3	9,8	10,1	11,5
- 16 urtetik 24ra	25,1	24,0	23,7	21,7	24,2	26,5
- 25 urtetik 44ra	9,6	12,1	12,0	11,8	12,7	13,4
- 45 urte eta gehiago	6,6	7,5	7,7	7,5	7,6	8,6

Iturria: BJA (Eustat).

Itxuraz, biztanleria gazteenak pairatu zuen gehien enplegu galera hori, urte arteko tasan adin horretako landunen kopurua %9,2 jaitsi zelako. Hala ere, gogoratu behar da 16 urtetik 24ra bitarteko biztanleria gero eta urriagoa dela eta, horren ondorioz, adin horretako enplegu tasak ez zuen aldaketarik izan. Zehazkiago adierazita, kolektibo horretako enplegu tasa %21,4ean kokatu zen, aurreko baliotik oso hurbil. Aitzitik, beste bi adin taldeek beheratu zuten landunen portzentaia, 25 eta 44 urte bitarteko taldean %75,1ean kokatu arte eta adin nagusienekoan %36,6ean utzita. Bi kasuetan lortu ziren tasak 2011. urtean jaso ziren batez besteak baino nabarmen txikiagoak dira.


Biztanleria aktiboak, berriz, landunek bezala, behera egin zuen aurreko hiruhilekoko emaitzaren aldean. Izan ere, lan merkatuan parte hartzen duten pertsonak 16 urtetik gorako biztanleriaren %55,8 izatetik %55,4 izatera igaro ziren, azken hamar hiruhilekoetako baliorik apalena baita. Lan merkatuaren partaidetza jaso zen beherakada hori ia bizitasun berarekin gauzatu zen bi sexuetan, baina azken urteotako joerak guztiz kontrajarriak dira. Hain zuzen

ere, gizonen artean lan merkatua uzteko joera arin bat hauteman da. Emakumeen artean, berriz, oraindik nabaritzen da partaidetza areagotzeko joera bat, oraingoa bezalako salbuespen txiki batzuekin.


Biztanleria aktiboaren jaitsiera horrek langabezia are gehiago haztea eragotzi zuen. Hala ere, langabeen kopurua 12.000 lagunetan baino gehiago igo zen azken urtean. Beraz, langabezia tasa %12,1ean kokatu zen, Europar Batasuneko batez bestetik (%10,2) gero eta urrunago dagoen balioa baita, nahiz eta Estatu osoarena (%24,4) baino askoz ere txikiagoa den. Gizonen langabezia tasa (%12,6) berriro izan zen emakumeena (%11,5) baino zertxobait altuagoa, baina bien arteko aldea ia puntu oso batean murriztu da. Adinaren arabera, talde guztiek igo zuten langabezia tasa, baina gazteena azpimarratu behar da (%26,5), gainontzeko taldeen tasak oso nabarmen gainditzen dituelako, belaunaldi berriek lan merkatuan sartzeko orduan aurkitzen dituzten zailtasunak agerian utziz.

Langabezia tasaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Lan merkatuaren zailtasunak enplegua erregulatzeko baimendu ziren dossierren kopuruan islatu ziren, aurtengo lehen lau hilekoetan nabarmen igo zirelako. Hala dossierren kopurua nola beraien eraginpean zeuden langileena 2011ko lehen hiruhilabetekoak edo urte horretako beste edozein hiruhilekorenak baino askoz ere handiagoa izan zen. Dossier mota guztiek gehikuntza garrantzitsuak izan zituzten, baina beraien artean kontratua amaitzekoak nabarmendu behar dira, hiru hilabeteko epe laburrean dagoeneko iazko kopuruaren erdia berdindu dutelako.

Orobat, lan erreformatik eratortzen den legediak dossier horien erabilera errazten du, orain administrazioaren baimena beharrezkoa ez delako, eta horren ondorioz litekeena da gehiagotan erabiltzea.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2010	2011	2011				2012	
			I	II	III	IV	I	Apirila
Dossierren kopurua	1.993	1.560	380	367	268	545	644	240
Eragindako langileak	35.426	22.072	5.588	4.337	4.733	7.414	9.811	2.649
<i>Dossier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	1.051	2.203	365	417	473	948	1.157	461
- Behin-behineko etetea	32.349	17.991	4.938	3.603	3.781	5.669	7.721	1.967
- Kontratua amaitzekoa	2.026	1.878	285	317	479	797	933	221

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Prezioak, kostuak eta soldatak

Prezioen adierazleek aurreko hiruhilekoetan erakusten zuten beheranzko joerari jarraipena eman zioten. Hori horrela izanda, hala BPGaren deflatoreak nola KPI eta IPRI indizeek 2011ko azken hiruhilekoan baino hazkunde txikiagoa izan zuten, neurri handi batean energiaren salneurriak, bereziki petrolioarenak, izan zuen bilakaeraren ondorioz, 2011ko amaieran hasi zuen merkatze mugimenduari segida eman ziolako. Aitzitik, soldata kostuek aurreko epealdietakoak baino gehikuntza handiagoak izan zituzten.


Prezioak

Inflazioaren presio eza BPGaren deflatorearen bilakaeran islatu zen, lehen hiruhilekoan %1,2 baino ez baitzen hazi, aurreko hiruhilekoaren tasatik oso hurbil. Eskariaren deflatore guztiek, salbuespen bakarra kontsumo publikoarena delarik, moteltze horretan lagundu zuten, baina kontsumo pribatuaren deflatoreak izan zuen bilakaera nabarmendu behar da, aurreko %2,5etik oraingo %1,8ra apaldu baitzuen hazkundera. Beste aldetik, kapital eraketa gordinarenak bi hamarrenetan leundu zuen bere gehikuntza, %1,1ean kokatu arte. Azkenik, kontsumo

publikoarenak aurreko tasa negatiboak, funtzionarioen soldatan eginiko murrizketei lotuta, atzean utzi zituen eta %0,6 hazi zen.

Kontsumoko prezioen indizeak aurreko hilabeteetako moteltzearekin jarraitu zuen aurtengo lehen hiruhilekoan eta baliorik gorena 2011ko apirilean jaso ondoren (%3,7), 2012ko lehen hilekoetan inflazioa %2aren inguruko tasan egonkortu zen. KPIaren moteltze horren zati bat Espainiako gobernuak urtebete bat lehenago onartu zituen neurri batzuen eragina, hala nola argindarraren, gasaren eta tabakoaren igoerak, konpentsatuta geratu izanak ekarri zuen. Orobat, petrolioaren salneurri altuak ere eragina izan zuen. Hain zuzen ere, lehengai horren prezioa oso nabarmen garestitu zen 2011. urtean zehar, urteko batez bestean %40, kontsumoko prezioen bilakaera baldintzatuz. Hala ere, 2012ko lehen lau hilekoetan upelaren salneurria 120 dolarren inguruan ibili ondoren, maiatzean 100 dolarrera jaitsi zen, KPIaren hazkundea %1,9an kokatzen lagunduz.

KPIaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat eta INE.

Bilakaera horri esker, EAEko inflazioak gero eta diferentzial hobea lortu zuen Eurogunearekiko, zortzi hamarrenetara iritsi baitzen, serie historiko osoan inoiz lortu ez zen emaitza bat delarik. Adierazi behar da energiaren prezioek gehiago baldintzatzen dutela EAEko indizea Eurogunekoa baino, hala garestitzen denean, 2011. urtean gertatu zen bezala, nola merkatzen denean. Hala ere, azpiko inflazioa ere autonomia erkidegoaren aldekoa izateak prezioen moteltzea energiako ondasunetan ez ezik gainontzekoetan ere gertatu dela

iradokitzen du. Kontsumoaren ahultasunak eta bezeroak erakartzeko prezioak ez igotzeko beharrak ere eragina izan zuten KPIak 2012ko hilekoetan izan duen moteltzean.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2010	2011	2011	2012		Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
Inflazioa guztira (%100)	1,7	3,1	2,7	2,0	1,9	1,9
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,7	1,8	1,7	1,3	1,1	0,9
- Landutako elikagaiak (%13,6)	0,7	3,8	4,2	3,0	2,6	0,3
- Industriako ondasunak (%27,7)	-0,2	0,7	0,3	-0,1	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%41,3)	1,4	2,0	1,8	1,6	1,4	0,6
Hondarreko inflazioa (%17,4)	6,6	9,5	7,7	5,2	5,9	1,0
- Landugabeko elikagaiak (%6,9)	0,2	1,5	0,8	2,0	2,8	0,2
- Energia (%10,5)	11,5	15,3	12,6	7,4	7,9	0,8

Iturria: INE.

Talde berezi guztiek lagundu zuten inflazioa jaisten, salbuespen bakarra landu gabeko elikagaiak izan zirelarik, urte amaieran oso bizkor garestitu zirelako. Izan ere, landutako elikagaien hazkundea leundu egin zen aurreko hiruhilekoaren aldean, ondasun mota horien barneko ekoizpenaren eta inportazioaren salneurriak moteldu zirelako. Industriako ondasunak ere gutxiago garestitu ziren eta tasa negatiboak jasotzera iritsi ziren, nahiz eta kasu horretan barne ekoizpeneko prezioen bilakaerak bakarrik lagundu zuen. Azkenik, zerbitzuek urtebete bat lehenago hasi ziren beheranzko joerari jarraipena eman zioten, energiako ekoizkinek ere moteltzeko joera bizia erakutsi zuten bitartean, nahiz eta talde horren balioak oraindik altuak diren.

Talde inflaziogileenak lehenago aipatu diren Gobernuaren erabakiek beraietan gehien eragin dutenak izan ziren, neurri horiek prezioen maila gorarazi zutelako. Hori dela eta, edari alkoholadunak eta tabakoak, etxebizitzak eta garraioak gainontzeko taldeek baino hazkunde tasa askoz handiagoak jaso zituzten. Haietako lehenak, beheranzko joeraren ondoren, gorantz egin zuen berriro, tabakoaren prezioak izan zuen igoerarengatik. Etxebizitzak, berriz, argindarraren garestitze garrantzitsua nabaritu zuen. Azkenik, garraioaren salneurriak hazkunde tasa garrantzitsuak izan zituen, nahiz eta balio horiek gero eta txikiagoak diren, automobilen prezioa jaitsi zelako eta erregaien portaera hobeia izan zelako.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2010	2011	2011			2012	
			II	III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	1,7	3,1	3,4	2,9	2,7	2,0	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,7	2,2	2,4	2,4	2,4	2,7	2,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	10,7	9,8	10,6	6,2	7,8	1,9	5,9
Jantziak eta oinetakoak	-0,2	0,3	0,5	0,1	0,4	-0,1	0,6
Etxebizitza	3,1	7,8	8,4	8,1	7,0	4,2	5,8
Etxeko hornidura	0,9	1,5	1,7	1,0	1,3	0,3	0,3
Medikuntza	-0,1	-0,6	0,0	-0,5	-1,6	-2,7	-2,4
Garraioa	6,5	7,7	8,1	7,4	6,2	5,2	3,8
Komunikazioak	-0,7	-0,8	0,3	-1,2	-1,5	-3,5	-3,8
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	0,4	0,2	0,4	0,5	0,4
Irakaskuntza	2,2	1,3	1,1	1,0	1,3	2,1	2,8
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,7	2,0	1,7	1,2	0,9	1,2
Besteak	2,1	2,7	2,9	2,5	2,4	2,1	1,3

Iturria: INE.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2010	2011	2011			2012	
			II	III	IV	I	Apirila
Indize orokorra	3,3	7,6	7,8	7,3	6,1	3,3	2,4
Kontsumoko ondasunak	0,2	2,4	2,6	2,2	1,9	1,4	1,6
- Kontsumo iraunkorrak	-0,5	0,5	0,4	0,5	0,8	0,7	0,8
- Kontsumo iragankorrak	0,5	3,1	3,5	3,0	2,3	1,7	1,9
Ekipamendurako ondasunak	0,1	2,1	1,9	2,2	2,2	1,4	1,6
Bitarteko ondasunak	3,1	6,2	7,2	5,5	3,2	0,6	-0,3
Energia	11,7	21,9	20,4	21,9	21,7	13,3	9,6

Iturria: Eustat.

IPRI indizeak ere bere urte arteko tasa jaitsi zuen berrir 2012ko lehen hilekoetan, apirilean %2,4an iritsi arte. Datu hori ez zen jaso 2010eko hasieratik. Beherakada horretan gehien eragin zuen arloa energiarena izan zen, petrolioaren salneurriek izan zuten jaitsierari esker.

Hala eta guztiz ere, gainontzeko taldeek ere lagundu zuten beheranzko joera hori areagotzen lehen hiruhilekoan. Dena dela, apirilean, argitaratu diren azken datuak hilabete horretakoak baitira, talde guztiek hazkunde tasak igotzeko norabidea berreskuratu zuten, salbuespen bakarra bitarteko ondasunak zirelarik, hauek balio negatiboak (%-0,3) jasotzera iritsi baitziren hilabete horretan.

Lan kostuak eta soldatak

Langile bakoitzeko lan kostua %2,2 igo zen 2012ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko epealdi beraren aldean. Gehikuntza tasa horretan eragin handia izan zuten bestelako kostuek, %4,6 handitu zirelako. Soldatakoak ez diren ordainketa horietan, bai irazitengatik ordainketak bai langabezia partzialarengatik nabarmendu ziren, biak igo zirelako. Hala eta guztiz ere, adierazi behar da sektoreek izan zuten portaera ezberdina. Hain zuzen ere, industriako kostuak %4,0 igo ziren bitartean, eraikuntzako kostuak %2,6 murriztu ziren.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LANGILE BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
Kostu guztiak	1,4	0,6	-0,5	-0,4	2,5	0,7	2,2
- Soldata kostuak	2,0	0,2	0,1	-1,2	0,7	0,9	1,4
- Bestelako kostuak	-0,4	1,9	-2,4	1,9	8,0	0,2	4,6
Kostu osoa industrian	2,3	1,6	-0,8	3,2	2,5	1,7	4,0
Kostu osoa eraikuntzan	-0,3	2,3	3,6	1,8	2,2	1,7	-2,6
Kostu osoa zerbitzuetan	1,4	0,3	-0,8	-1,8	3,1	0,6	2,2

Iturria: INE.

Are handiagoa izan zen benetan lan egindako ordu bakoitzaren lan kostuaren gehikuntza, %2,9 igo baitzen. Langile bakoitzaren eta lan egindako ordu bakoitzaren arteko aldea lanaldiaren bilakaerak azaltzen du, aurtengo lehen hiruhilekoan lan egindako orduak jaitsi zirelako. Berrito ere, EAE izan zen lan egindako orduko kostu handiena duen autonomia erkidegoa, 21,6 eurotan kokatu baitzen.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LAN ORDU BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
Kostu guztiak	0,6	0,7	-2,9	-1,4	4,4	1,8	2,9
- Soldata kostuak	1,2	0,2	-2,3	-2,2	2,6	2,0	2,1
- Bestelako kostuak	-1,1	2,1	-4,8	0,9	9,9	1,2	5,4
Kostu osoa industrian	0,3	-0,5	-6,3	-1,8	3,8	0,7	4,4
Kostu osoa eraikuntzan	0,7	1,7	0,1	-1,4	4,3	3,6	-1,5
Kostu osoa zerbitzuetan	0,6	1,2	-1,9	-1,2	5,2	2,2	2,6

Iturria: INE.

Beste aldetik, 2012. urterako lan hitzarmenetan adostu den soldata gehikuntzak altua izaten jarraitzen du eta %2,8an kokatu da, urtean zehar sinatu diren hitzarmenek igoera apalagoak jaso badira ere, azken hauen batez bestea %1,9 baita. Dena dela, zenbaki horiek oraindik ez dira oso esanguratsuak, indarrean dauden hitzarmenek langile gutxirengan bakarrik dutelako eragina. Orobat, sinatu diren hitzarmen gehienak aurreko urteetan adostutako urte batzuetarakoak dira eta urtean zehar akordioak ixten diren heinean batez besteko gehikuntza tasa jaitsiko dela espero da, lan erreformak hitzarmen orokorra ez onartzeko aukerak zabaldu zituelako.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2008	2009	2010	2011	2012 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	5,0	2,7	1,9	3,6	2,8
- Urtean zehar sinatutakoak	4,8	2,8	1,7	3,4	1,9
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	5,2	2,8	1,7	3,8	3,0
- Enpresako hitzarmenak	4,1	2,6	2,4	3,1	2,6

(*) 2012ko apirilera arte jasotako lan hitzarmenak

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

2012ko lehen hiruhilekoan, gastu publikoa doitzeko neurriak ezartzen jarraitu zen. Hori horrela izanda, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontu bateratuko eragiketetan igoera txikiak hautematen dira langileen gastuetan (%1,4) eta funtzionamenduko gastuetan (%1,0). Orobat, inbertsio errealak %28,1 murriztu ziren aurreko urteko kopuruaren aldean. Beste muturrean, finantza gastuak %57,5 areagotu ziren urte arteko tasan eta 52 milioi eurora iritsi ziren.

Diru sarrerei dagokienez, maiatza arte itunpeko zergen bidez bildutako diruak agerian uzten du ekonomiaren egoera txarra eta %4,4 jaitsi zen. Beraz, onartu ziren zerga igoerek ez dute diru bilketa igoarazi. Izan ere, epealdi horretan diru gehiago bildu duen zerga bakarra sozietateen zerga da. Hala eta guztiz ere, diru bilketaren urte arteko jaitsieran paper garrantzitsu bat jokatzen du Rover kasutik jasotako dirua itzuli behar izanak, urte arteko alderaketa desitxuratzen duelako.

Analisia zuzeneko zergekin hasita, PFEZ zergak, aurreko epealdietan ez bezala, tasa negatiboak jaso zituen (%-1,6). Familien errenta txikiagoa izateak eta lan etekinen atxikipenak, langabeziaren igoeretatik, gutxitu izanak beherantz eramane zuten zerga hori. Dena dela, jaitsiera hori, neurri batean, zerga horretan aldi baterako ezarri zen karga igoerak konpentsatu zuen.

Sozietateen gaineko zergaren diru bilketak, berriz, %16,3ko urte arteko gehikuntza jaso zuen, baina goizegi da zerga horrek urte amaieran izango duen bilakaera jakiteko, zeren eta ordainketa nagusia abuztuan egiten baita. Oraingoan, diru sarrera handiago horiek zerga horretan onartu ziren araudi aldaketek azaltzen dute nagusiki, baina aitortutako posibleak ere suspertu direla baieztatuta geratu da. Itzulketa bolumen handiagoak faktore horien eragina leundu zuten.

Zeharkako zergen artean, BEZ zergaren jaitsiera (%-9,0) nabarmendu behar da. Rover kasuak eragin zion kalteaz gain, eskatutako atzerapenen igoerak, kontsumo pribatuaren geldotasunak eta erositako etxebizitza gutxiago izateak ere diru bilketaren beherakada bultzatu zuten. Azkenik, zerga bereziek ere behera egin zuten, baina neurri txikiagoan (%-2,7), hidrokarburoen jaitsierarengatik, erregaien kontsumoa txikiagoa izan zelako. Aitzitik, tabakoaren gaineko lanen zergak nabarmen gehiago bildu zuen, tipoa igo baino lehen egiten den pilaketarengatik. Elektrizitatearen diru bilketak hazkunde leuneko erritmoari eutsi zion, argindarraren igoerarengatik.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2012ko urtariletik maiatzera)

Mila euro


ZERGAK	Diru bilketa			
	2011	2012	Aurrekon. %	12/11 aldak. %
PFEZ	1.448.937	1.426.086	32,1	-1,6
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	1.891.310	1.882.310	40,8	-0,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	84.991	102.124	48,8	20,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	38.870	38.773	43,6	-0,3
- Ondare irabazien atxikipenak	6.840	7.612	55,8	11,3
- Profesionalen eta enpresariaren ordainketa zatikatuak	77.370	74.971	46,6	-3,1
- Kuota diferentzial garbia	-650.445	-679.703	107,3	-4,5
Sozietateen gaineko zerga	150.084	174.572	15,3	16,3
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	84.991	102.124	40,8	20,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	38.870	38.773	48,8	-0,3
- Ondare irabazien atxikipenak	6.840	7.612	43,6	11,3
- Kuota diferentzial garbia	19.383	26.063	3,1	34,5
Zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	32.952	37.778	49,2	14,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	29.664	33.586	41,3	13,2
Ondarearen gaineko zerga	---	2.245	---	---
Iraungitako zergak	1.193	---	---	---
ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA	1.662.831	1.674.268	29,1	0,7
BEZaren bertoko kudeaketa	1.515.900	1.226.252	36,2	-19,1
Ondare eskualdaketen gaineko zerga	43.261	35.643	32,5	-17,6
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	24.678	17.949	30,2	-27,3
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	10.219	7.921	32,2	-22,5
Fabrikazio zerga berezia. Bertoko kudeaketa	556.963	547.226	37,7	-1,8
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gainekoa	24.147	23.756	47,9	-1,6
Aseguru sarien gaineko zerga	27.877	26.143	32,8	-6,2
ZEHAHAKO ZERGAK GUZTIRA	2.203.044	1.884.890	36,5	-14,4
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	36.773	39.044	34,1	6,2
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	3.902.648	3.598.202	32,6	-7,8
BEZaren doikuntza	336.876	459.862	38,1	36,5
Zerga berezien doikuntza	-49.761	-53.494	48,3	-7,5
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	4.189.762	4.004.570	33,0	-4,4

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

2012ko lehen hiru hilekoetan, zor subiranoko merkatuetan bizi ziren tentsioak baretu izana finantza merkatuetan islatu zen modu orokorrean eta aurtengo lehen hiruhilekoan burtsako indizeek eta euroaren truke tasak susperraldia lortu zuten.

Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

Hala eta guztiz ere, martxoaren amaieran Europako zor subiranoaren krisiak okerrera egin zezakeelako beldurak tentsioen biziagotze bortitza eragin zuen eta, harekin batera, ziurgabetasunarena. Zehazkiago adierazita, ezegonkortasun horrek Espainian izan zuen eragina bereziki eta bertako arrisku sariak italiarrena gainditu zuen, udako hilekoetatik ezagutu zen joerari buelta emanez. Izan ere, Espainiako banku sistemaren osasunak pizten duen susmo txarrak eta Greziaren etorkizunaz dauden zalantzek 540 oinarri puntura igoarazi zuen Espainiako arrisku saria maiatzean, aurrekaririk gabeko maila bat delarik. Aldi berean, Alemaniako zorak eskaintzen zuen errentagarritasun hutsalak, une batzuetan tasa negatiboetatik hurbil kotizatu baitzuen, eta periferiako bonuez agerian zeuden alertek errentagarritasuna Frantzia eta Austria bezalako herrialdeetako zorretan bilatzera behartu zituzten inbertitzaileak. Hain zuzen ere, Austriako bonuaren interesak euroa onartu zenetik inoiz izan duen mailarik txikiena izan zuen (%2,13), Frantziakoa %2,37an kokatu zen bitartean.

Munduko ekonomiaren egoera ahularen aurrean eta merkatuen konfiantza berreskuratzeko asmoz, Europako Banku Zentralak (%1), Fed-ek (%0tik %025era), Ingalaterrako Bankuak (%0,25) eta Japoniakoak (%0tik %01era) erreferentziako interes tasak bere horretan eta maila txikienetan uztea erabaki zuten. Aldea ezohiko neurrietatik iritsi zen. Izan ere, Japoniako Bankuak deflazio iraunkorrari aurre egiteko moneta malgutasuneko beste neurri bat hartu zuen eta 5 bilioi yenetan (46.663 milioi euro) zabaldu zuen aktiboak erosteko programa. Aitzitik, Erreserba Federalak eta EBZk ez zuten moneta pizgarri berririk erabili.


Garapen bidean dauden herrialdeetako banku zentralek ere moneta politika ez hain murriztaile aukeratu zituzten ekonomiaren hazkundera bultzatzeko. Hain zuzen ere, Txinako Herriaren Bankuak, 2011ko uztailetik interes tasak %6,56an utzi ondoren, 2012ko ekainean 25 oinarri puntu jaitsi zituen. Orobat, Indiako Erreserba Bankuak, inflazioa kontrolatzeko interes tasak hamahiru aldiz jarraian igo eta gero, diruaren prezioa jaitea erabaki zuen, hazkundera suspertzeko eta inbertsioa areagotzeko, eta erreferentziako interes tasa puntu erdi bat jaitsi zuen, %8,0 arte. Azkenik, Brasileko Bankuak ere bat egin zuen joera horrekin eta esku hartzeko tasa 75 puntutan murriztu zuen, %9,0an kokatu arte.

Grezia eurotik irteteko aukerak eragin zuen beldurak eta Europako banku askoren kreditu kalifikazioa jaitsi izanak arriskua saihesteko nahia areagotu zuen inbertitzaileen artean, babesak europar dirutik at bilatzea aukeratu baitzuten. AEBetako ekonomiak erakutsi zuen sendotasunak lagundu zuen dolarraren eta euroaren arteko truke tasa amerikar diruaren alde ebatz zedin, babes aktibo gisa hartu baitzen. Izan ere, Eurogunearen ezegonkortasunaren aurrean eta bertako BPG berriro jaitsi zela erakusten zuten datu ekonomikoak argitaratu ondoren, euroaren balioa, maiatzean, 1,245 dolarretik behera joan zen. Euroaren balio galera hori ez zen dolarrarekiko trukera mugatu eta beste dibisa batzuetara ere hedatu zen. Esate


baterako, Suitzako frankoaren, libra esterlinaren eta yenaren aldean ere balioa galdu zuen. Ekainaren hasieran, euroaren balioa 96,50 yenera iritsi zen, ordura arte inoiz jaso ez zen truke tasa bat delarik.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libra esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.


Burtsa merkatuan, hobekuntza esanguratsuak jaso ziren urte hasieran, baina atzera egin zuten martxoaren amaieran. Izan ere, martxoaren erdialdea arte, munduko burtsa nagusiek gorakada garrantzitsuak lortu zituzten, Nasdaq eta Nikkeiren kasuetan, hurrenez hurren, %17,4 eta %19,8ko irabazi metatuak baitziren. Hala ere, lehen datu ekonomikoak argitaratu ondoren eta Greziako zorraren barkatzeaz zegoen ziurgabetasunarekin, muturreko gorabeherak gertatu

ziren eta fluxuak arrisku gutxiagoko aktiboetara mugitu ziren, Atlantikoaren bi aldeetako burtsa nagusietan beherakada orokorrak eraginez. Dena dela, urteko balantzean ia indize guztiek galerak saihestu zituzten.


Izan zuen bilakaera txarragatik Ibex-35 indizea nabarmendu zen gainontzekoen aldean, martxoaren erdialdean beheranzko joera bati ekin baitzion, espainiar burtsa, maiatzean, 6.000 puntuetatik hurbil eramanez, hots, ekonomiaren atzeraldian izan zuen maila apalena (6.817,4 puntu) baino askoz beherago. Espainiako ekonomiak periferiako bazkideak murgilduta egon ziren egoera saihesteko duen ahalmenaz inbertitzaileek erakutsi zuten zalantzez gain, Espainiako finantza arloa onbideratzeko plana onartu izanak eta Argentinak YPFren filialaren zati bat desjabetzeko erabakiak ere bat-bateko beherakada horretan eragina izan zuten.

Interes tasen bilakaera %

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.

EBZk hiru urterako enkanteen bidez eskaini zuen likidezia handiak interes tasen jaitsiera ahalbidetu zuen eta, haiekin batera, euriborrarena. Hipoteka maileguak 18 hilabetez jarraian igo ondoren, 2011ko azaroan euriborrak norabidea aldatu zuen eta jaisten hasi zen, baina jaitsiera horrek ez zuen eraginik izan hipoteka maileguetan aurtengo otsaila arte. Izan ere, 115 egun jarraian gutxitu ondoren (historiako epealdi luzeena baita), urtebete baterako euriborra %1,266an kokatu zen maiatzean. Hiru hilekorako euriborrak ere bat egin zuen joera horrekin eta %0,68ra murriztu zen, 2010eko amaieratik jaso den txikiena.

Kreditu pribatuaren bilakaerari dagokionez, EAEko banku, kutxa eta kooperatibetatik lortu den finantza informazioaren arabera, 2012ko lehen hilekoetan, kreditu pribatuek beren narriadura areagotu zuten eta %2,5 jaitsi ziren, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago. Kasu horretan, ekoizpen jarduerak finantzatzera bideratutako kredituak behera egin zuen –dagoeneko hamabi hilekoz jarraian jaitsi da-, baina baita familien gastua finantzatzera bideratutako kreditu pribatua ere, 2010. urtea hasi zenetik lehen aldiz tasa negatiboak jaso zituelako.

EAE-KO KREDITU PRIBATUEN SAILKAPENA ESKATUTAKO XEDEAREN ARABERA

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila € I 2012	Guztiarekiko ehunekoak
	2011	2011			2012		
		II	III	IV	I		
Xedeak:							
Ekoizpen jarduerak finantzatu	-2,4	-1,8	-5,6	-3,7	-6,9	17.620.345	29,1
Familien gastua finantzatu	0,9	0,6	0,6	0,3	-0,2	42.508.014	70,1
Ohiko etxebizitza erosteko	1,5	1,2	1,2	1,1	0,5	37.942.912	62,6
Kontsumo iraunkorreko ond.	-15,1	-6,4	-6,1	-6,8	-13,6	749.289	1,2
Familien bestelako gastuak	-1,4	-3,5	-3,5	-5,6	-4,0	3.815.813	6,3
Bestelako gastuak finantzatu	-58,2	-62,3	-32,8	-63,2	-26,5	484.706	0,8
GUZTIRA	-1,4	-1,4	-1,8	-2,3	-2,5	60.613.065	100,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina euskal banku, kutxa eta kooperatiben datuetan oinarrituta.

2010eko lehen hilekoetatik, familien gastuak finantzatzera bideratu ziren kredituen bilakaeran moteltzeko joera garbia hauteman zen, baina etxebizitza erostera zuzendutako kredituen nolabaiteko egonkortasunak, guztizkoaren %60 inguru biltzen baitu, ondasun iraunkorrak (automobilak, etxeko tresna elektrikoak eta besteak) erostera bideratutako kredituaren etengabeko murrizketa eta, neurri txikiagoan, familien bestelako gastuak, konpentsatzea lortu zuen. Hala ere, 2012ko lehen hiruhilekoan, ekonomiaren bilakaeraz zegoen ziurgabetasunak eta hipotekako eragiketa berrien interes tasak igo izanak hipoteken eskariak gutxitu zituzten. Halaber, banka sistema berregituratzeko prozesu berritik eratorri ziren beharrek finantza erakundeen funts erabilgarriak gutxitu zituzten. Aurreko guztiaren ondorioz, higiezinak erostera zuzendutako kredituak moteltzeko joera garrantzitsua izan zuen eta beraren hazkundera (%0,5) gutxiegi izan zen kontsumo iraunkorreko ondasunak erostera (%-13,6) eta familien bestelako gastuetara (%-4,0) bideratutako kredituen murrizketa handia konpentsatzeko. Hori dela eta, familien gastuak finantzatzera bideratu ziren kreditu pribatuak %0,2 gutxitu ziren.

Jaitsiera horrek esan nahi du EAEko familien zorra 347 milioi eurotan gutxitu zela 2011ko laugarren hiruhilekoan zegoen mailarekiko, eta 2010. urtea hasi zenetik arlo pribatuaren zorpetzea 1.557 milioi eurotan baino gehiagotan murriztu dela. Hala eta guztiz ere, zalantzazko kredituen bolumenak gora egin zuen berriro, eta zorra gutxitu zenez berankortasuneko tasa handitu egin zen. Zehazkiago adierazita, EAEko banku, kutxa eta kooperatiben berankortasuna %4,96ra hazi zen, krisia hasi zenetik jaso den mailarik gorena baita. Datu positiboa estaldura orokorreko ratioaren eskutik iritsi zen. Izan ere, Gobernuak arlo finantzario espainiarrari ezarri dion berregituratzearen bigarren zatiak erakundeak behartu zituen 54.000 milioi euro gordetzera, higiezinen arloko zalantzazko aktiboak onbideratzeko, eta beste 30.000 milioi euro gehiago arlo bereko aktibo onbideratuetaarako. Horren ondorioz, estaldura orokorreko ratioa %90,06ra igo zen, 2009ko lehen hiruhilekotik inoiz jaso den mailarik gorena baita.

EAE-KO GORDAILU PRIBATUEN SAILKAPENA

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila € I 2012	Guztiarekiko ehunekoak
	2011	2011			2012		
		II	III	IV	I		
Kreditu kooperatibak	0,8	1,1	1,2	0,8	-0,1	1.2662.748	18,2
Banku eta kutxak	-2,8	0,5	-2,0	-2,8	-7,9	57.096.660	81,8
Ageriko gordailuak	16,9	8,9	11,6	16,9	6,1	12.946.217	18,6
Aurrezki gordailuak	-15,2	-11,2	-15,4	-15,2	-19,5	11.878.226	17,0
Eperako gordailuak	-4,5	2,0	-1,3	-4,5	-7,9	32.272.218	46,3
GUZTIRA	-2,2	0,6	-1,4	-2,2	-6,6	69.759.408	100,0

Iturria: Espainiako Bankua.

EAEko gordailu pribatuek, Espainiako Bankuak argitaratu dituen datuen arabera, 2011ko bigarren hiruhilekoan hasi zen moteltzeko joerari jarraipena eman zioten eta %6,6 gutxitu ziren. Espainiako finantza sistemaren bideragarritasunaz eta egonkortasunaz dauden zalantza iraunkorrek likidezaren aldeko hautua areagotu zuten EAEko eragileen artean, aurrezki eta eperako ezarpenen kaltetan. Hala ere, ageriko kontuak ere nabarmen moteldu ziren, nahiz eta oraindik hazkunde negatiboetatik salbatu ziren. Hain zuzen ere, 2012ko lehen laurdenean, EAEko gordailu pribatuak 69.759 milioi eurora iritsi ziren, 2008ko erdialdetik jaso den kopururik apalena baita.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Munduko ekonomiaren BPGak %2,9aren inguruko hazkundera lortuko du, batez beste, 2012-2013 epealdian, aurreikuspenen batez bestearen arabera. Nazioarteko erakundeek egin dituzten azken inkestetan, nolabaiteko hobekuntza hauteman da AEBetarako igurikiminetan eta inflexio gunea, berriz, Japoniako joeran. Gainontzeko ekonomia aurreratuetan, eta oso bereziki Europar Batasunean, aurreikuspenen zuzenketak beheranzkoak izan dira eta Europako ekonomia batzuk aurkeztzen ari diren narriadura gero eta handiagoa baieztatuta geratu da. Halaber, Europarekin merkataritza harreman estuak dituzten ekonomiek ere beheranzko zuzenketa biziak nozitu zituzten, kutsadura efektuarengatik. Garapen bidean dauden ekonomiak, berriz, munduko ekonomiaren joera bizkortuko duen bultzagile nagusia izango dira. Dena dela, epe laburra duela hiru hilabete baino ziurgabetasun handiagoz ikusten da orain eta mahai gainean dauden zalantza ugarien arrazoi behinena Eurogunearen etorkizuneko bilakaera da.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumo prezio indizeak		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Munduko ekonomia	2,9	2,6	3,1	3,7	3,0	2,9
AEB	1,7	2,3	2,5	3,1	2,3	2,1
Kanada	2,5	2,1	2,3	2,9	2,1	2,0
Japonia	-0,7	2,0	1,5	-0,3	-0,1	0,0
Eurogunea	1,5	-0,4	0,8	2,7	2,4	1,8
Europar Batasuna	1,5	-0,1	1,1	2,9	2,4	2,0
Alemania	3,0	0,8	1,6	2,3	2,1	1,9
Espainia	0,7	-1,7	-0,6	3,2	2,0	1,6
Frantzia	1,7	0,4	1,0	2,1	2,1	1,7
Herbehereak	1,3	-0,7	1,1	2,3	2,3	2,3
Italia	0,5	-1,5	0,1	2,8	3,0	2,5
Erresuma Batua	0,7	0,4	1,8	4,5	2,9	2,1
Asia eta Ozeano Barea	4,4	5,0	5,1	3,5	2,6	2,7
Ekialdeko Europa	4,4	2,8	3,6	6,3	6,4	5,3
Amerika Latinoa	4,2	3,7	4,1	6,9	6,0	6,3


Iturria: Consensus Forecast (2012ko maiatza).

AEBeK eta Japoniak suspertze neurritsuko joerari jarraipena emango diote, zikloaren puntu baxuena atzean utzi eta gero. Izan ere, AEBetako ekonomiarentzat %2,3ko hazkundea espero da 2012. urtean eta %2,5, berriz, 2013an. Hala ere, eszenategi horretako arriskuak ugariak dira. Alde batetik, Eurogunearen arazoak Amerikara igarotzeko arriskua dago, kutsatzeko bidea finantza merkatuak izango zirelarik. Orobat, kontinente zaharrak pairatzen duen egoera zailak konfiantza krisia eragin dezake estatubatuar eragileengan, barne eskariaren narriadura ekarriz. Beste arrisku bat, kasu honetan barnean sortua, defizit publikoa murrizteko estrategiarik eza da, hazkunde ahuleko testuinguru batean AEBetako arrisku saria igoarazi dezakeena, munduko ekonomia handietan, bata bestearen segidan, eragin kaltegarriak sortuz.

BPGaren bilakaera eremuka


Urte arteko aldakuntza tasak

Eurogunea




2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

AEB




2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

Japonia



2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

Txina




2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

Iturria: NDF. 2012ko apirileko aurreikuspenak.


Japonia, berriz, %2,0 haziko da 2012. urtean, herrialdea berreraikitzeko bideratu diren neurriei esker. Hala eta guztiz ere, Euroguneko arazoek Japoniako ekonomiaren jardura oztopatuko dute, herrialde horretako esportazioei kalte egingo dielako. 2013. urterako, munduko ekonomiaren ahultasunak eta berreraikitzeko gastuaren murrizketak hazkunde tasa %1,5era apalduko dute.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Garapen bidean dauden ekonomiek %5,5etik gorako gehikuntza tasa lortuko dute 2012an, azken urteetan gertatu den bezala, Asia, eta zehazkiago, Txina eta India hazkunde horren buruan egongo direla. Izan ere, epe laburrean, garatzen ari diren ekonomien multzoak ekonomia aurreratuen pisua gainditu dezake munduko BPGaren banaketan. Hala ere, biztanleko errentan bi blokeen artean dauden aldeak garrantzitsuak izango dira oraindik. Dena dela, Asiako eremuan hautematen den arrisku nagusia Txinako agintariak bertako ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko ezarri duten politika da.

Nazioarteko ingurunean nabarmenduko den beste eremu bat Amerika Latinoa da eta oso bereziki Brasil, Hegoamerikako bultzagile nagusia baita. Ekonomia horien hazkundea mehatxatzen duten arriskuak inflazioaren balizko gorakada bat eta, nazionalizatzeko prozesuen ondorioz, atzerriko inbertsioaren irteera dira. NDFaren arabera, Brasileko ekonomia %3,0 eta %4,1 haziko da, hurrenez hurren, 2012 eta 2013 urteetan.

Eurogunean, aurreikuspenak moteltzeko joera iradokitzen du, moneta batasuneko herrialde kide batzuetan zor subiranoaren krisia larriagotu izanaren eraginengatik. Defizit publikoa zuzentzeko politikek Euroguneko hazkunde ahalmena lastatuko dute eta hazkunde aurreikuspenak beherantz zuzentzen ari dira. Nazioarteko erakundeen artean jadanik ez da zalantzan jartzen herrialde batzuen zorren gainean merkatuek egiten duten presioari aurre egiteko Europako gobernuek ezarri dituzten hereturako politikek BPGaren hazkundean eragin kaltegarria izango dutela. Izan ere, 2012. urterako hazkunde tasa $\%-0,4$ an kokatuko da, Consensus Forecast-en arabera, zikloaren baliorik apalena aurtengo bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean gertatuko dela. Data horren geroztik, suspertzeko joera arina biziko da eta 2013ko batez bestean $\%0,8$ ko gehikuntza tasa lortuko da. Epe laburrean, herrialdeen artean dauden hazkunde tasa ezberdinek bere horretan jarraituko dute. Beste aldetik, langabezia tasak gorantz berrikusi dira. Ekonomiaren hazkundeak izango duen atzerakadak lanpostu asko galtzea ekarriko du berarekin eta ez da aurreikusten enplegu garbirik sortzea 2012-2013 epealdia igaro arte.

Ziurgabetasun handiena Eurogunean bideratuko den politika ekonomikoaren oinarritzko arauetan dago eta lehentasuna herstura fiskalak edo ekonomiaren hazkundeak izango ote duen. Litekeena ere bada euroaren oraingo osakeran aldaketa bat egotea. Nazioarteko erakunde batzuek kontuan hartzen dute Greziaren irteera moneta batasunetik eta zalantzak ugariak dira, horrelako gertakari baten aurrekaririk ez dagoelako.

Espainian, berriz, barne produktu gordina $\%1,7$ aren inguruan gutxituko da 2012. urtean, gero susperraldi arin bati ekiteko eta 2013ko hazkunde tasa $\%-0,6$ an kokatzeko. Hala eta guztiz ere, oso ezberdinak dira Espainiako ekonomiaren bilakaeraz aurkeztu diren aurreikuspenak eta berauek egin dituzten erakunde horiek $\%-1,0$ aren eta $\%-2,3$ aren artean kokatzen dute 2012ko hazkunde ekonomikoa. Beraz, inork ez du zalantzan jartzen aurtengoa atzeraldiko urtea izango dela Espainian. 2013. urterako, aurreikusi den urte arteko tasa $\%0,7$ aren eta $\%-1,5$ aren artean dago kokatuta, atzeraldian jarraitzeko probabilitatea zertxobait gutxituz. Zikloaren une baxuena 2012ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2013ko lehen hiruhilekoaren artean gertatuko da. Murrizketen eta sistema fiskalaren erreformen ondorioak indar handiagok nabaritutako dira epealdi horretan.

Defizit publikoa zuzentzeko irizpideak kalte egingo die barne eskariaren osagai guztiei. Izan ere, gastu eta inbertsio publikoak zuzenean gutxituko dira eta familien kontsumoa eta enpresen inbertsioa okertuko dira, enpleguaren galerarengatik eta kreditu bat lortzeko zailtasunengatik. Nazioarteko hazkundearen moteltzeak ere gehikuntza globalaren zati garrantzitsu bat murriztuko du.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipoan eta bestean	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-2,0	-1,7	-2,0	-1,5	-10,6	-9,6	-9,1	-3,1	-10,4	-3,7	-7,5	-1,8
BBVA	-1,3	0,6	-2,0	-0,9	-8,0	-5,6	-7,4	-1,0	-9,2	-3,2	-4,6	-2,8
Bankia	-1,6	0,0	-2,2	-0,6	-5,5	-4,2	-8,0	-1,4	-9,7	-2,2	-6,1	-0,5
CatalunyaCaixa	-1,9	-0,6	-1,5	-0,2	-8,0	-8,0	-9,1	-1,9	-10,4	-3,8	-8,4	1,4
Cemex	-2,1	-2,3	-1,9	-2,6	-4,6	-4,0	-12,0	-8,4	-14,0	-11,0	-10,0	-6,0
CEEM-URJC	-1,9	0,6	-1,7	0,4	-7,8	-2,8	-8,2	-2,0	-8,6	-3,6	-7,5	1,1
CEPREDE-UAM	-1,1	-0,5	-1,5	0,1	-8,6	-8,0	-10,2	-4,1	-12,1	-5,1	-7,2	-2,9
CEOE	-1,6	-0,6	-1,1	-0,8	-7,8	-6,7	-8,3	-3,3	-10,7	-5,3	-5,0	0,4
ESADE	-1,5	---	-1,0	---	-6,9	---	-1,3	---	---	---	---	---
FUNCAS	-1,7	-1,5	-1,8	-2,6	-6,4	-7,2	-9,4	-6,4	-11,7	-8,5	-6,7	-3,1
ICAE-UCM	-1,6	-0,4	-2,1	-2,1	-5,9	-1,1	-10,0	-5,5	-11,5	-6,0	-3,0	-5,0
IEE	-1,8	-0,4	-1,8	-1,0	-6,0	-1,5	-6,8	-3,0	-8,5	-4,1	-5,3	-1,0
IFL-UC3M	-1,5	-0,9	-1,4	-0,8	-7,5	-6,6	-8,9	-5,2	-11,4	-6,8	-6,3	-3,9
Intermoney	-2,1	---	-2,5	---	-4,6	---	-12,4	---	-13,9	---	-10,8	---
La Caixa	-1,5	-0,5	-1,3	-0,7	-6,3	-6,1	-9,2	-3,1	-10,9	-3,4	-7,6	-2,6
Repsol	-1,8	-0,6	-1,1	-0,5	-6,7	-5,7	-9,7	-4,8	-11,6	-6,5	-8,4	-1,4
Santander	-1,6	-0,2	-1,5	-0,8	-6,5	-6,0	-8,1	-5,0	-9,1	-6,6	-6,0	-1,8
Solchaga Recio	-1,8	0,0	-1,8	-0,7	-6,1	-3,5	-9,2	-2,4	-9,6	-3,3	-7,5	-0,4
Batez bestea	-1,7	-0,6	-1,7	-1,0	-6,9	-5,4	-8,7	-3,8	-10,8	-5,2	-6,9	-1,9
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-05)	-1,7	0,2	-1,4	-1,1	-8,0	-4,6	-9,0	-0,5	-9,9	-0,7	-7,3	-0,2
Esp. Bankua (2012-01)	-1,5	0,2	-1,2	-0,5	-6,3	-3,3	-9,2	-2,2	-10,6	-3,1	-7,0	-0,9
E. Batzor. (2012-05)	-1,8	-0,3	-2,2	-1,3	-6,9	-3,5	-7,9	-3,2	-9,1	-3,5	-6,1	-3,0
NDF (2012-04)	-1,8	0,1	-0,9	0,6	-7,6	-2,4	-7,5	-1,0	---	---	---	---
ELGE (2012-05)	-1,6	-0,8	-2,9	-1,8	-7,7	-4,5	-9,3	-2,4	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-5,3	-3,4	1,9	5,8	-8,9	0,5	1,8	1,1	-4,3	-2,5	25,0	26,6
BBVA	-4,5	-1,8	4,0	8,9	-6,2	1,6	1,9	0,7	-4,3	-2,0	24,6	24,8
Bankia	-4,1	-1,5	1,6	3,6	-6,6	0,9	2,1	1,8	-3,5	-1,5	24,5	25,6
CatalunyaCaixa	-4,0	-2,2	0,8	3,3	-7,1	0,8	1,8	1,5	-4,2	-1,2	24,6	25,7
Cemex	-4,7	-4,1	1,8	5,6	-5,5	1,0	1,7	1,5	-4,0	-3,0	24,5	25,5
CEEM-URJC	-4,4	-0,7	3,9	4,5	-4,7	0,4	1,7	1,5	-3,3	-0,5	24,1	24,3
CEPREDE-UAM	-5,0	-2,5	2,8	4,8	-9,7	-0,6	2,3	2,6	-2,7	-1,2	23,3	23,9
CEOE	-3,8	-2,3	3,1	5,8	-5,0	-0,2	1,9	1,1	-3,5	-1,7	24,2	25,4
ESADE	-2,2	---	4,0	---	1,0	---	1,7	---	-3,0	---	24,0	---
FUNCAS	-4,3	-4,4	2,2	6,0	-6,6	-3,2	2,0	1,4	-4,0	-2,7	24,5	26,1
ICAE-UCM	-4,5	-1,8	1,3	4,1	-9,0	-1,7	2,0	2,0	-2,8	-1,5	23,8	22,6
IEE	-3,9	-1,5	3,0	3,5	-4,0	-0,7	2,0	2,0	-2,5	-1,0	24,1	24,5
IFL-UC3M	---	---	2,5	5,2	-6,3	-0,5	1,8	1,4	---	---	24,3	25,5
Intermoney	-5,1	---	-1,5	---	-11,0	---	0,9	---	-3,8	---	24,0	---
La Caixa	-4,0	-2,2	0,5	4,3	-7,4	-1,2	2,0	1,4	-4,3	-2,4	24,7	25,8
Repsol	-4,1	-2,7	1,0	6,8	-7,1	-0,3	1,9	1,5	-3,5	-1,5	24,6	24,8
Santander	-4,0	-2,7	4,3	6,8	-3,8	-0,9	1,8	1,4	-3,1	-1,6	23,8	24,6
Solchaga Recio	-4,4	-2,1	3,1	5,9	-5,3	-0,2	2,1	1,5	-3,9	-1,0	24,5	24,8
Batez bestea	-4,3	-2,4	2,2	5,3	-6,3	-0,3	1,9	1,5	-3,6	-1,7	24,3	25,0
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-05)	-4,4	-1,6	3,5	6,9	-5,1	1,3	1,6	2,2	-3,7	-0,4	24,3	24,2
Esp. Bankua (2012-01)	---	---	3,5	5,9	-4,8	1,2	1,5	1,2	-3,0	-0,7	23,4	23,3
E. Batzor. (2012-05)	-4,4	-2,1	3,2	4,7	-5,6	-0,9	1,9	1,1	-3,7	-1,5	24,4	25,1
NDF (2012-04)	---	---	2,1	4,1	-4,1	2,9	1,9	1,6	-3,2	0,1	24,2	23,9
ELGE (2012-05)	-5,3	-2,5	3,1	5,7	-9,2	0,8	1,6	2,1	---	---	24,5	25,3

Iturria: Funcas.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2012ko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	12.II	12.III	12.IV	2012	13.I	13.II	13.III	13.IV	2013
BPG	-1,1	-1,5	-1,5	-1,1	-1,5	-0,8	-0,1	0,5	-0,5
Kontsumo pribatua	-1,8	-2,1	-1,2	-1,5	-0,8	-0,1	0,4	0,8	0,1
Kontsumo publikoa	-8,0	-9,2	-10,7	-8,6	-10,7	-9,1	-7,0	-4,9	-8,0
Kap. finkoaren eraketa gordina	-10,5	-11,7	-9,3	-10,2	-6,6	-4,9	-3,4	-1,5	-4,1
- Inbertsioa ekipamenduan	-5,7	-9,8	-7,9	-7,2	-5,9	-3,9	-1,9	0,4	-2,9
- Inbertsioa landutako aktib.	-6,3	-5,8	-1,5	-5,0	-1,3	-0,9	-0,7	-0,2	-0,8
- Inbertsioa eraikuntzan	-13,1	-13,2	-10,6	-12,1	-7,4	-5,9	-4,5	-2,5	-5,1
Barne eskaria	-5,2	-5,8	-4,9	-5,0	-4,1	-2,9	-1,9	-0,9	-2,5
Esportazioak	2,8	2,4	2,5	2,8	3,7	4,6	4,9	5,7	4,8
Inportazioak	-10,3	-11,0	-8,2	-9,7	-4,2	-1,3	0,5	2,7	-0,6

Iturria: CEPREDE.

Lan merkatuak azken epealdietako narriadurarekin jarraituko du. Izan ere, enpleguaren hazkunde aurreikuspenek beheranzko zuzenketa bizia izan dute 2012rako eta baita 2013rako ere. Azken urte horretan, suspertzeko joera arina biziko da eta enpleguaren galera gutxituko da, baina aurreikusi den epealdi osoan ez da lanposturik sortuko eta ez da langabezia tasa jaitsiko.

EAErako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko taula makroekonomikoaren aurreikuspenak eguneratu ditu 2012rako eta 2013ko lehen hiru hiruhilekoetarako. Hazkunde aurreikuspen berrietan, bere horretan utzi da aurreko hiruhilekoan 2012rako estimatu zen tasa (%-1,3). Jaitsiera horrek agerian uzten du EAEko ekonomiaren jarduerak narriadura garrantzitsu bat pairatuko duela. 2013. urteko lehen sei hilekoan, hazkunde tasa negatiboak aurreikusten dira, baina gero eta txikiagoak, urte amaieran urte arteko tasa positiboak lortu arte.

Aurreikuspen horren arabera, EAEko barne eskariak ekarpen negatiboa egingo dio ekonomiaren hazkundeari. Hiruhilekako bilakaerak 2012ko bigarren sei hilekoan kokatzen du zikloaren puntu baxuena, harez geroztik ekarpen negatiboa aurreikusi den epealdi osoan zehar

gutxitzeko. Dena dela, osagai horren zeinua negatiboa izango da behin eta berriro. Kanpo eskariari dagokionez, EAEko ekonomiaren gehikuntzari egingo dion ekarpena positiboa baina hutsala izango da, nazioarteko ingurunerako plazaratu diren aurreikuspen ezkorrengatik. Hala ere, 2013. urtean zehar, ekarpena hobetuko dela espero da, ekonomia orokorra suspertuko delako.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2012ko maiatza)


Urte arteko aldakuntza tasak	2012.II	2012.III	2012.IV	2012	2013.I	2013.II	2013.III
BPG	-1,2	-1,7	-1,7	-1,3	-1,4	-0,5	0,1
Azken kontsumoa	-0,4	-1,0	-0,8	-0,5	-0,6	-0,3	0,0
Kontsumo pribatua	0,0	-0,3	-0,4	-0,2	-0,4	-0,2	0,1
Kontsumo publikoa	-1,9	-3,5	-2,1	-1,8	-1,4	-1,1	-0,1
Kapital eraketa gordina	-4,5	-5,3	-4,8	-4,7	-4,5	-4,0	-3,0
Barne eskariaren ekarpena	-1,3	-1,9	-1,7	-1,5	-1,5	-1,1	-0,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,1	0,2	0,1	0,2	0,1	0,6	0,6
Lehen arloa	-3,2	-19,3	-24,6	-7,3	-22,0	-14,1	-9,4
Industria	-2,2	-2,8	-2,6	-2,2	-2,3	-1,4	0,8
Eraikuntza	-6,5	-7,1	-6,5	-6,5	-5,2	-3,7	-2,8
Zerbitzuak	-0,3	-0,5	-0,5	-0,3	-0,4	0,2	0,3
Balio erantsi gordina	-1,3	-1,8	-1,8	-1,3	-1,4	-0,6	0,1
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-0,3	-0,5	-0,4	-0,1	-0,3	0,4	0,5
BPGren deflatoarea	1,4	1,3	1,4	1,3	1,4	1,5	1,6
Enplegua	-2,5	-2,4	-2,1	-2,2	-1,9	-1,4	-0,7
Langabezia tasa	12,5	12,7	12,7	12,5	12,8	12,8	12,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Barne eskariaren ikuspegitik, tasa negatiboak orokorrak izango dira agregatuaren osagai guztien artean. Familien gastuak bizitasun ez erabatekoa erakutsiko du, soldaten errentak eta kontsumitzaileen gizarte prestazioak oso gutxi haziko direlako. Halaber, lan merkatuaren egoerak ez ditu familiak kontsumitzera bultzatuko. Aurrekoarengatik, familien gastua %0,2 gutxituko da 2012. urtean. Administrazio publikoek ere beren gastua gutxituko dute, aurrekontuak murrizteko testuinguru batean. Osagai horren beherakada %2,0aren inguruan kokatuko da 2012. urtean. Dena dela, epealdi horretako narriadura handiena inbertsioak pairatuko du, %5,0aren inguruko jaitsiera batekin. Merkatuek finantzazioa emateko ezarri dituzten baldintza zorrotzek eta barneko zein nazioarteko moteltzeak dira enpresen egitasmoak aurrera eramateko oztopo nagusiak.

EAEko BPGren eta enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizpen eskaintza aztertuta, EAEko balio erantsi gordinak behera egingo du 2012. urte osoan eta 2013ko lehen seihilekoan. Jaitsiera motelduko da eta 2013ko hirugarren hiruhilekoan agertuko da agregatuaren lehen hazkunde positiboa. Narriadura orokorra izango da jarduera adar guztietan. Hain zuzen ere, industriaren galera %2,2 izango da 2012an eta barneko atzeraldiak eta kanpoko moteltzeak eragingo dute. Eraikuntzan, berriz, etxegintzaren doikuntzak aurrera jarraituko du. Beste aldetik, eskaintza eskaria txikiagora egokituko da eta metatu den gehiegizko etxebizitzaren kopurua urratsez urrats zuzenduko da. Hala ere, sektore horren narriadura %-6,5aren ingurukoa izango da 2012. urtean. Beste aldetik, zerbitzuak izango dira neurri txikiagoan jaitsiko direnak aurrean eta arinago suspertuko direnak 2013an. Zerbitzuen aldakuntza tasa %-0,3 izango da aurrean eta ia hutsala, berriz, 2013ko lehen bederatzi hilekoetan.

Orain aurkezten den eszenategi makroekonomiko honetan beherantz zuzendu dira lan merkatuaren aldagaiak. Hain zuzen ere, enpleguaren galera aurreko hiruhilekoan espero zena baino biziagoa izango da. 2012ko batez bestean eta 2013ko lehen hiru hiruhilekoetan, hurrenez hurren, enpleguaren aldakuntza tasak %-2,2 eta %-1,3 izango dira. Galdutako lanpostuetan adierazita, 2012an 20.000 enplegu inguru galduko dira. Langabezia tasarentzat eginiko aurreikuspenak ere aldatu dira eta %12,5ean kokatzen dira 2012an, %12,8ra igotzeko 2013ko lehen bederatzi hilekoetan.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiarentzat aurkeztu duen eszenategi makroekonomikoak hainbat suposamendu egiten ditu munduko ekonomiaren bilakaeraz, euroak dolarraren aldean izango duen truke tasaz, deflatoreez eta Europako Banku Zentralak ezarriko dituen interes tasez, aurreikuspenetan kontuan hartzen den epealdirako.

Euroak balio handia izango du dolarraren aldean, Euroguneko ekonomiek arazo larriak nozituko dituzten arren. Hala ere, euroaren truke tasa zertxobait ahulagoa aurreikusten da, diru bakarraren etorkizunaz dagoen ziurgabetasunarengatik eta Europako ekonomia erakusten ari den ahultasunarengatik, erreskateen katea etengabe batean murgilduta baitago. Bat egite politiko eta ekonomiko handiago baten ezean, euroak sinesgarritasuna eta konfiantza galduko ditu nazioarteko ingurunean.

Interes tasari dagokionez, epe laburrean ez da mugimendurik espero EBZaren aldetik. Europako ekonomian bizitasunik ez egoteak eta inflazioan tentsioak egongo diren aurreikuspenak hutsalak izateak epe laburreko interes tasak oraingo mailetan jarraituko dutela pentsarazten dute. Beste aldetik, epe luzearako interes tasek beheranzko joera erakutsiko dute zor subiranoaren gainean dauden presioen ondorioz.